



DIARIO DE SESIONES
DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA

IX Legislatura

Pamplona, 26 de septiembre de 2018

NÚM. 13

TRANSCRIPCIÓN LITERAL

**COMISIÓN ESPECIAL PARA LA ELABORACIÓN DE UNA
NUEVA LEY FORAL DEL EUSKERA**

PRESIDENCIA DEL ILMO. SR. D. DABID ANAUT PEÑA

SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 26 DE SEPTIEMBRE DE 2018

ORDEN DEL DÍA

- Modificación de las normas de organización y funcionamiento de los debates.
- Comparecencia de representantes de la red de técnicos municipales de euskera.

(Comienza la sesión a las 12 horas y 20 minutos).

Modificación de las normas de organización y funcionamiento de los debates.

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Egun on. Gaurko Batzarrari hasiera emango diogu. Orduan, gaurko Batzarrak bi puntu dauzka. Lehendabizikoa, dakizuen bezala, izango da Batzordeak berak dauzkan arauak aldatzea. Arauetan, arau jakin bat aldatzea proposatu genuen, hain zuzen ere, interbentzioen iraupenari eta erreplikari dagokiona.

[Buenos días. Vamos a comenzar la sesión de hoy. Entonces, la Comisión de hoy tiene dos puntos. El primero, como saben, será cambiar las reglas que tiene la propia Comisión. En la normativa, propusimos cambiar una regla específica, concretamente, sobre la duración de las intervenciones y el correspondiente a la réplica.]

Orduan, proposamena gogoratuko dut badaezpada. Lehendabiziko partehartzea, alegia, agerraldiko gonbidatuak egingo duena, aurrekoan bezala ordu erdiko izatea, baina ondoren gure txanda bigarren erreplika egin beharrean, ohiko prozedura izango dugu, hau da, bost taldeok hitza hartuko dugu, handienetik hasita txikienera, hamar minutuko txandak izango dira eta horiek bukatutakoan ohiko erreplika izango du gonbidatuak.

[Entonces, recordaré la propuesta por si acaso. La primera intervención, es decir, aquella que haga el invitado a comparecer, como hasta ahora será de media hora, pero luego, en vez de realizar la segunda réplica tras nuestro turno, tendremos el procedimiento de siempre, es decir, que los cinco grupos tomaremos la palabra, de mayor a menor, serán turnos de diez minutos y, al término de los mismos, el invitado tendrá la réplica habitual.]

Beraz, inork hitza hartu nahi baldin badu edo prozedura aldaketa honetaz zerbait esan, esan dezake. Bestela, ontzat emango dugu. Bozketa egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez onartuta gelditzen da lehendabiziko puntua.

[Por lo tanto, si alguien quiere tomar la palabra o decir algo sobre este cambio de procedimiento, lo puede hacer. Si no, lo daremos por bueno. Haremos una votación. ¿Votos a favor? Se aprueba el primer punto por unanimidad.]

Comparecencia de representantes de la red de técnicos municipales de euskera.

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eta bigarren puntura pasatuko gara. Bigarren puntua gaurko gai nagusia da, esan dezagun. Dakizuen bezala, agerraldien fasean gaude sartuta. Udako etenaldiaren ondoren beste bi eragile etorri dira eta gaur hirugarrena etorri da, hain zuzen ere, Nafarroako udal euskara teknikarien sarea. Sarearen izenean hiru udal euskara teknikari dauzkagu hemen: Patri Arburua, Elvira Lizeaga eta Ana Mindegia. Orduan, ordu erdiko tarte emango diegu aurkezpena egiteko eta gero, esan dugun bezala, indar politikoen txanda izango dugu.

[Y pasamos al segundo punto. El segundo punto es el punto principal de hoy. Como saben, estamos en la fase de comparecencias. Tras el parón de verano han venido otros dos actores y hoy viene el tercero, concretamente, la red de técnicos de euskera

municipales de Navarra. En nombre de la red tenemos tres técnicas municipales de euskera: Patri Arburua, Elvira Lizeaga y Ana Mindegia. Entonces, les damos un margen de media hora para realizar la presentación y luego, como hemos dicho, será el turno de las fuerzas políticas.]

Aurkezpen handirik ez dut egin nahi, seguru aski euren burua aurkeztuko dutelako. Baina jakina da euskararen legeak administrazioari eragin egingo liokeela, herritarri ere bai, eta beraz, administrazioan eta herritarrekin zuzenean lan egiten duten euskara teknikariei ere bai. Eragile kualifikatua da, noski, administrazioaren baitan lan egiten duelako, besteak beste. Horregatik egin zen gonbitea hona etortzeko eta euskararen lege berri baterako proiektu honetan beren ekarpena egiteko. Beraz, besterik gabe, hitza emango diegu. Hogei minutuko tartea duzue.

[No quiero hacer demasiadas presentaciones ya que seguramente se presentarán. Pero es sabido que la ley del euskera podría afectar a la administración, también a los ciudadanos, y, por lo tanto, también a los técnicos de euskera que trabajan en la administración y directamente con los ciudadanos. Es un actor cualificado, por supuesto, porque trabaja dentro de la propia administración, entre otras cosas. Por eso se les invitó a venir aquí y a que realizaran su aportación en este proyecto para una nueva ley del euskera. Por lo tanto, les damos la palabra. Tiene veinte minutos.]

SRA. LIZEAGA URDANPILLETA: Egun on. Hastera goaz, baina hasi aurretik ohar batzuk eman nahi genizkizueke saioa errazago jarraitu ahal izateko. Ikusiko duzuen moduan, mahai gainean dokumentu bat utzi dizuegu, zazpi atalekoa. Barkatu. Esaten ari nintzen mahai gainean gaurko saiorako eratu dugun dokumentua utzi dizuegula. Ez? Bai? Orain bai? Mahaian gaurko saiorako eratu dugun dokumentu bat utzi dizuegu, zazpi atalekoa. Proposamen formako azterlan bat da, baina guk hiru ataletan banatuta aurkeztuko dizuegu.

[Buenos días. Voy a comenzar, pero antes de empezar queríamos dar algunas anotaciones para poder seguir la sesión de forma más sencilla. Como verán, les hemos dejado encima de la mesa un documento, de siete apartados. Perdón. Estaba diciendo que les hemos dejado encima de la mesa un documento que hemos creado para la sesión. ¿No? ¿Sí? ¿Ahora sí? Encima de la mesa les hemos dejado un documento que hemos creado para a sesión, de siete apartados. Es un estudio en forma de propuesta, pero nosotros se lo vamos a presentar dividido en tres partes.]

Lehenengo atalean gutxi gorabehera adieraziko dizuegu edo azalduko dizuegu nori begira egin dagoen, zein helbururekin eta nola eragin nahiko genukeen. Bigarrean zehazki zer proposatzen dugun azalduko dizuegu aplikaziorako neurrien bidez. Eta, azkenik, bitartekoei buruz hitz eginen dugu eta beste gogoetaren bat edo beste utziko dugu.

[En la primera parte más o menos les diremos o les explicaremos con la mira puesta en quién es que se ha realizado, con qué objetivos y cómo quisiéramos actuar. En la segunda parte les explicaremos concretamente qué es lo que proponemos mediante medidas de aplicación. Y, finalmente, hablaremos de medios y realizaremos alguna reflexión.]

Baina lan hau bera azaltzen hasteko gure aurkezpena itzuli beharko genuke minutu batez guk egiten dugun lana bera hobeki ulertuko duzuelako modu horretara. Lehendakariak aipatu duen moduan, teknikarien sare batean lan egiten dugu. Sare horrek 29 urte ditu, 34 profesional gaur egun, eta gu guztion formazioa eta esperientzia askotarikoa bada ere, formazioz eta ofizioz jardunaren oinarrian ezarrita ditugu 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta 1996ko Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Printzipio eta balore horiekin pertsona eta hizkuntza komunitate guztiek eskubide berak dituzte guretzat eta dibertsitatea aberastasuna izateaz gain, ohikoa da gizaterian eta gizartean. Kontuan hartu behar da planetan 6.000 hizkuntza inguru daudela 200 bat estatutan banatuta eta, hortaz, normalena da lurralde batean hizkuntza komunitate bat baino gehiago bizitzea, dibertsitatea berez datorrelako pertsonekin eta giza taldeekin.

[Pero para empezar a explicar el propio trabajo, deberíamos volver a nuestra presentación durante un minuto porque así entenderán mejor el trabajo que realizamos. Como ha dicho el Presidente, trabajamos en una red de técnicos. Esa red tiene 29 años, cuenta actualmente con 34 profesionales y, si bien nuestra formación y experiencia es variada, en la base de nuestra actividad de formación y oficio tenemos la Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948 y la Declaración Universal de los Derechos Lingüísticos de 1996. Con esos principios y valores todas las personas y comunidades lingüísticas tienen los mismos derechos para nosotros y la diversidad, además de ser una riqueza, es algo común en la humanidad y sociedad. Hay que tener en cuenta que en el planeta hay alrededor de 6.000 lenguas divididas en 200 estados y que, por lo tanto, lo más normal es que en el mismo territorio viva más de una comunidad lingüística, ya que la diversidad viene con las personas y los grupos de personas.]

Eta printzipio horiei tiraka, orain bai administraziora etortzen bagara, ezinbestean gure jardunaren abiapuntuan eta erdigunean jarrita dugun zutabe nagusiarekin topo egiten dugu eta hori herritarra da. Bera da lan honen eta gure jardunaren oinarri nagusia, hain zuzen ere. Bigarren oinarria jarri aurretik baina, eskatuko genizueke zuen buruetan administrazioko bizitzan oso ohikoa den egoera bat irudikatzea. Imajina dezagun herritar bat sartzen dela administrazioaren edozein bulegotan, edozein administrazioaren bulegotan. Adibidez, Erriberako herritar bat sartzen da. Bertara joaten da, bertako zerbitzari publikoarengana, zer behar duen adierazten dio, pertsona horrek erantzun egiten dio ongi, tratu egokiz, eta egin beharrekoa amaitu da eta bulego horretatik ateratzen da, normal eta bestelako arazorik gabe. Herritar hori, beste egun batean ere gerta daiteke orain horretara joan den bezala zerbitzu telematikoak edo telefonikoak erabiltzea.

[Y tirando de esos principios, ahora sí, si venimos a la administración, nos encontramos obligatoriamente con el principal pilar situado como en el centro y como punto de partida de nuestra actividad y ese es el ciudadano. Él es la principal base de este trabajo y de nuestra actividad. Pero antes de poner la segunda base, les pediríamos que se imaginen una situación muy común en la vida de la administración. Imaginemos que un ciudadano entra a cualquier oficina de la administración, a una oficina de cualquier administración. Por ejemplo, entra un ciudadano de la Ribera. Se dirige allí, hacia los trabajadores públicos de allí, les comenta qué necesita, esa persona le responde bien, con un trato adecuado, y finaliza la labor y sale de la oficina, normal y sin ningún

problema. Ese ciudadano, puede ocurrir que otro día, al igual que ahora ha acudido a ese servicio, utilice los servicios telemáticos o telefónicos.]

Herritar hori eta bere hizkuntza eskubideak planetaren aberastasun dira eta bere hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira. Horrela lirateke legeak aitortuko ez balizkio ere, baina kasu honetan Konstituzioak 3. artikulutik hasita aitortzen dizkio, bertan ezartzen baita gaztelania dela Espainiako hizkuntza ofiziala eta Nafarroako administrazio osoan normaltasunez jaso ditzake bere zerbitzuak. Herritar hori berari eskubidez dagokion zerbitzua jasotzera joan da, hori normaltasuna da eta bera da egoera horren protagonista. Izan ere, zerbitzu horiek herritarrenak dira. Eta administrazioan modu batean edo bestean lan egiten dugunok herritarentzat gaude. Administrazioaren definizio funtzional batetik begiratuta herritarra delako administrazioaren izateko arrazoia.

[Ese ciudadano y sus derechos lingüísticos también son una riqueza del planeta y sus derechos lingüísticos son derechos humanos. También lo serían, aunque la ley no se los reconociese, pero en este caso se le reconocen empezando por el 3º artículo de la Constitución, ya que ahí se establece que el castellano es la lengua oficial de España y en toda la administración de Navarra se pueden dar con normalidad sus servicios. Como ese ciudadano se dirige a escribir un servicio que le corresponde por derecho, eso es normalidad y esa persona es la protagonista de esa situación, ya que esos servicios son de los ciudadanos. Y los que trabajamos de un modo u otro en la administración estamos para los ciudadanos. Porque mirándolo desde una definición funcional de la administración, el ciudadano es la razón de ser de la administración.]

Hortaz, lehenengo azpimarratuko dugu lan honen oinarria, batetik, herritarra dela eta, bestetik, herritarren zerbitzuetan sortzen diren harreman normalak deitu diogu bertan ibilitako aditu juridikoen terminologiari jarraituz. Horiei begira dago lan hau, herritarrek harreman normalak behar dituztelako beren zerbitzuak egoki jasotzeko. Eta administrazioak zerbitzu egokia ematea gutxienekoa eta bere obligazioa da.

[Por lo tanto, primero subrayaremos que la base de este trabajo por un lado es el ciudadano y, por otro lado, que siguiendo la terminología jurídica de los expertos que han trabajado en ello, las hemos llamado relaciones normales a las que se dan con los servicios de los ciudadanos. Este trabajo está con la mira fija en eso, ya que los ciudadanos necesitan relaciones normales para recibir adecuadamente sus servicios. Y que la administración de un servicio adecuado es un mínimo y es su obligación.]

Horretarako baina, eskubidez dagokiona herritar guztiei emateko administrazioak esku hartu beharko luke. Eta nola? Gure proposamenaren arabera, lehenik proposatzen duguna da progresibotasun idea edo irizpide hori errebisatzea eta gero administrazioko beste kontu pare bat. Baina hori progresibotasunaz hitz egin nahiko genuke, beti ere ulertuta progresibotasun hori denbora eta aurrerapenaren arteko bezala eta bokazio eraikitzailea duen elementu bezala.

[Pero para eso, para dar a todos los ciudadanos lo que por derecho les corresponde, la administración tendría que tomar partido. ¿Y cómo? Según nuestra propuesta, lo primero que proponemos es que se revise esa idea o criterio de progresividad y después

otro par de cuestiones de la administración. Pero querría hablar de eso, de la progresividad, siempre entendiendo esa progresividad como algo entre el tiempo y el avance y como elemento con vocación de construir.]

Hortaz, horri buruz hitz egiteko, progresibotasunari buruz hitz egiteko, Konstituzioa, legedia eta eskubideen korpusa aipatu nahi ditugu une batez. Konstituzioak 3. artikulua horretan ere badio erkidegoko hizkuntzek zaintza eta begirune berezia behar dutela. Espainiak konpromisua hartu zituen Europako Hizkuntza Gutxituen Karta sinatuta. Konstituzioak ere adierazten du herritar guztiak berdinak direla administrazioaren aurrean. Bestelako eskubide zibilen gutunak, itunak ere badaude. Eta badaukagu ere Foru Lege bat eta Foru Lege horrek ezartzen du hemengo hizkuntza bereziak zeintzuk diren. Sustapena eta abar ere aipatzen ditu.

[Así, para hablar de ello, para hablar de la progresividad, queremos comentar un momento la constitución, la normativa y el corpus de derechos. La Constitución en ese 3º artículo dice que las lenguas de la comunidad necesitan un cuidado y control especial. España adquirió compromisos con la firma de la Carta Europeo de las Lenguas Minoritarias. La Constitución también dice que todos los ciudadanos son iguales frente a la administración. También hay diferentes cartas y tratados de derecho civil. Y tenemos una Ley Foral y esa Ley Foral establece cuáles son las lenguas especiales de aquí. También habla del fomento, etcétera.]

Baina hori guztia edukita ere, Foru Legearen 30 urteko ibilbide honetan ikusi dugu eskubideak kasu askotan ez direla bete, ez administrazioaren barruan ezta kanpoan ere. Adibidez, esaterako, eremu mixtoan ezagutu egin ditugu arreta postu elebidun bat edo biko entitateak, haur eta gazteekin lan egiten zerbitzuetan gaztelania bakarrik erabiltzea, erantzun desegokiak ematea herritarrei euren hizkuntza hautuarengatik edo plantilla organikoetan hizkuntza eskakizuna txertatzea jada jendea kontratatu ondoren. Hori toki entitateetan, baina Foru Gobernuan nolabait esateko egoera ez da hobea. Kopuru batek laburbiltzen du egoera: 1,28 da langile elebidunen kopurua. Eta, azken finean, Nafarroan euskal hiztun gehien dauden inguruan ia aurrerapenik ez egitea edo kasu batzuetan nulua izatea posiblea izan da urte guzti hauetan.

[Pero aun teniendo todo eso, en esta trayectoria de 30 años de la Ley Foral hemos visto que en este caso los derechos no se han cumplido, ni dentro ni fuera de la administración. Por ejemplo, en la zona mixta hemos conocido entidades con un puesto de atención bilingüe o dos, que se utilice solamente el castellano en servicios que trabajado con niños y jóvenes, dar respuestas inadecuadas a los ciudadanos por seleccionar su lengua o que se introduzca la exigencia de la lengua en las plantillas orgánicas ya cuando se ha contratado a la gente. Eso en entidades locales, pero en el Gobierno Foral, por decirlo de alguna manera, la situación no es mejor. Hay un número que resume la situación: 1,28 es la cantidad de trabajadores bilingües. Y, al final, durante todos estos años ha sido posible que casi no se logren avances en las zonas de Navarra en las que más vascoparlantes hay, o que a veces sean nulos.]

Hori esanda, hala eta guztiz ere, argitu nahi dugu 30 urteko ibilbide honetan ikusi ditugula adibide positiboago batzuk, nahiz eta normaltasunera ez diren iritsi. Eta hortxe jarri nahiko genuke etorkizunerako begirada, hain zuzen ere. Entitate hauetan, progresibotasunaren

zabaltasun horretan, nolabait borondate politikoa, planifikazioa eta hizkuntzan hartutako erabakiak uztartu dituzte, aurrerapausoak eman dituzte. Eta udalerrri horietan gaztelania erabiltzen jarraitu dute, baina bertako bi hizkuntzak erabiltzeko aukera gehiago sortu dira eta orain herri aberatsagoak dira eta elkarbizitzarako baldintza egokiagoak dituzte.

[Dicho es, sin embargo, queremos aclarar que en estos 30 años de trayectoria hemos visto algunos ejemplos positivos, aunque no hayan llegado a la normalidad. Y ahí queremos fijar la mira para el futuro, concretamente. En estas entidades, en esa amplitud de la progresividad se han impulsado la voluntad política, la planificación y las decisiones tomadas en la lengua, han dado pasos. Y en esos municipios han seguido utilizando en castellano, pero se han creado más oportunidades de emplear ambas lenguas y ahora son pueblos más ricos y tienen condiciones adecuadas para la convivencia.]

Eta seguru aski pentsatuko dugu nola gerta daitezke horrelako diferentziak, toki batean aurreratzea, beste batzuetan ez, legeriak begiruneaz, zaintza bereziaz edo berdintasunaz hitz egiten badu, nola izan daitekeen hori. Besteak beste, definiziorik gabeko progresibotasun ideia bat daukagulako eta horrek leihoak zabalik uzten dizkiolako tokian tokiko eta garaian garaiko borondate eta giro politikoari. Eta azkenerako, eskubideak betetzea ere horren baitan gelditzen da.

[Y seguramente pensaremos que cómo se pueden dar tales diferencias, que en algunos casos se avance y en otros no, si la ley habla de miramiento, cuidado especial o igualdad, cómo puede ser eso posible. Entre otras cosas, porque tenemos una idea de progresividad sin definición y eso deja abiertas las ventanas a la voluntad y ambiente político de cada lugar y tiempo. Y, por último, se recoge también el hecho de cumplir los derechos.]

Azaldutako guzti honekin zer den adierazi nahi duguna? Zalantzarik gabe ofizialtasunak garrantzia duela, baina eskubideak babesteko efektibotasuna gal daitekeela berriz ere progresibotasun horren zernolakotasuna zehazten ez bada. Hau da, epe minimo batzuk ematea baita definizio minimo bat ere. Bestela, gerta daiteke ziur asko berriz ere urtetan emaitzarik gabeko ahaleginetan luzatzea.

[¿Qué es lo que queremos decir con todo lo explicado? Que sin duda la oficialidad tiene importancia, pero que la efectividad para proteger los derechos se puede perder si no se define la cualidad de esa progresividad. Es decir, dar unos tiempos mínimos y también una mínima definición. Si no, puede ocurrir con mucha probabilidad que de nuevo se prolongue en esfuerzos sin resultados.]

Eta guk, horregatik, eskuartean daukagun proposamen honetan hiru alderdiko progresibotasun modulagarri bat proposatzen dizuegu. Batetik, denbora faktorea aintzat hartuko duena, bestetik neurriak eta espazioak edo esparru funtzionalak. Hiru alderdi horiek konbinatu eta modulatu beharko lirateke premien eta egoeren arabera. Eta premia eta egoera horiek lehenik markatuko dituzte udalerrien errealitate demolingüistikoek eta, beste alde batetik, udalerrri bakoitzean dagoeneko egina duten lanak. Abiapuntu hori hartu eta hortik aurrera jarraitu beharko genuke lanean. Eta lan horretan esan behar da administrazioak ere

bere jarrera egoerari doitu beharko liokeela. Esan bezala, herritarron eskubideak betetzeaz ari gara, baina ez hori bakarrik. Nafarroan ondarean den bertako hizkuntzetako bat berreskuratzeaz eta ondorioz psikosozial negatiboak eragiten dituen minorizazio egoera oso bat iraultzeaz ere bai.

[Y por eso en esta propuesta que tenemos entre manos les proponemos una progresividad de tres campos que se puede modular. Por un lado, tendrá en cuenta el factor del tiempo, por otro lado, las medidas y espacios o zonas funcionales. Esos res ámbitos se deberían combinar y modular según la necesidad y la situación. Y las realidades demolingüísticas de los municipios y, por otro lado, el trabajo que realiza cada municipio marcarán esas necesidades y situaciones. Deberíamos tomar ese punto de partida y avanzar desde ahí. Y hay que decir que en ese trabajo la administración también debería ajustar su actitud a la situación. Como se ha dicho, hablamos del cumplimiento de los derechos de los ciudadanos, pero no solo eso. También se habla de la recuperación de una de las lenguas propias del patrimonio de Navarra y de deruir una situación completa de minorización que conlleva unas consecuencias psicosociales negativas.]

Hortaz, administrazioak proaktibotasunez jokatu beharko luke. Batetik, aktiboa izan beharko luke erabakiak hartzen, planifikatzen eta exekutatzeko. Eta, bestetik, planifikazio horretan aurreikuspenak egin beharko lituzke eta inizatiba hartu nolabait herritarrei eragiten zaizkien ondorio horiek prebenitzeko.

[Por lo tanto, la administración debería actuar con proactividad. por un lado, debería ser activa tomando, planificando y ejecutando decisiones. Y, por otro lado, en esa planificación debería realizar previsiones y tomar la iniciativa para prevenir de algún modo esas consecuencias que les causan a los ciudadanos.]

Esan dugun bezala, elebiko postuak oso gutxi dira oraindik orain administrazioan. Eta, horren ondorioz, toki administrazio batzuk aparte utzita, administrazio elebakarren irudia eta jarrera existitzen da. Eta egoera horretan ez da eraginkorra ezta bidezkoa ere ez herritar bat hor erdian sartu eta bere bizkar uztea hizkuntzaren erabilera aktibatzekeo ardura. Hori irauli beharko litzateke eta horretarako neurri asko edo neurri batzuk behintzat hartu behar dira.

[Como hemos dicho, todavía son muy pocos los puestos bilingües en la administración. Y, por eso, dejando al margen algunas administraciones locales, existe la imagen y postura de las administraciones monolingües. Y en esa situación no es eficaz ni justo meter ahí en medio a un ciudadano y dejarle todo el peso de la responsabilidad de activar el uso de la lengua. Habría que terminar con eso y para eso hay que tomar muchas medidas o al menos algunas.]

Baina hasteko, konbertsazio normal bat edukitzera goazenean eskubideen alderdi pasibo, aktibo direlako horiek gaintitu beharko lirateke. Logika juridikoan tokia izanen dute, baina herritarren eguneroko bizitzan, praktikan, gu bulego batera joaten garenean, azkenean harreman normalak behar ditugu, komunikazio jariotsu bat, bi aldekoa, ekintza bakar bat. Eta hor ez dago alderdi pasibo eta aktiborik. Hor ekintza bakar bat dago eta naturala izan behar du.

[Pero, para empezar, cuando hablamos de tener una conversación normal, habría que superar los aspectos pasivos de los derechos, ya que son activos. En la lógica jurídica tienen cabida, pero en la vida diaria de los ciudadanos, en la práctica, cuando nosotros vamos a una oficina, al final necesitamos relaciones normales, una comunicación fluida, de ambas partes, una única acción. Y ahí no hay ni lado pasivo ni activo. Ahí hay una única acción y tiene que ser natural.]

Hortaz, horretarako, arreta postu administratibo eta teknikoak ugaritu egin beharko lirateke, eta jarrera eta errealitate horiek iraultzeko eta gainditzeko jarduketa espezifikoak eta ekintza positiboak beharko lirateke, bai herritarrentzat eta baita zerbitzu emaileentzat ere. Eta, jakina, hori guztia gauzatzeko, egiturazko baliabideak behar dira, giza baliabideak, teknologikoak, ekonomikoak eta abar. Hor ere ekintza positiboa behar dela ulertzen dugu, minorizazio edo desoreka egoerak daudenean behar diren bezalaxe. Ekintza positiboak normaltasunera eta berdintasunera bideratuak, bai herritarren administrazio horretan eta kanpoan ere bai. Izan ere, lurraldean gertatzen denak isla dauka administrazioan eta alderantziz ere, administrazioan eboluzioa dagoenean gizartean ere bai.

[Por lo tanto, para ello, deberían aumentarse los puestos de atención administrativos y técnicos y se necesitarían acciones positivas y actividades específicas para combatir y superar esas actitudes y realidades, tanto para el ciudadano como para la persona que ofrece el servicio. Y, por supuesto, para que todo eso se lleve a cabo, se necesitan recursos estructurales, recursos humanos, tecnológicos, económicos, etcétera. Entendemos que ahí también se necesita una acción positiva, al igual que se necesitan cuando hay situaciones de minorización o desequilibrio. Acciones positivas dirigidas a la normalidad e igualdad, tanto en esa administración de los ciudadanos como fuera, ya que lo que ocurre en el territorio deja huella en la administración y al revés, cuando en la administración se da una evolución, en la sociedad también.]

SRA. ARBURUA ETXEBERRIA: Egun on. Goazen orain gure proposamena kokatzera. Testuingurua azalduko dugu. Lehenik eta behin, erranen dugu guk ere gure proposamenaren ortzimugan beti izan dugula herritarrek zerbitzu administratiboetan harreman normalak Nafarroako bi hizkuntzetan izatea. Gero hau hobeki azalduko dut, baina azken finean guk horregatik, ortzimuga hori izan dugulako, proposamena herritarrek jaso beharreko zerbitzuei begira egin dugu nagusiki.

[Buenos días. Vamos ahora a situar nuestra propuesta. Explicaremos el contexto. En primer lugar, diremos que en el horizonte de nuestra propuesta siempre hemos tenido que los ciudadanos tengan relaciones normales en los servicios administrativos en las dos lenguas de Navarra. Luego explicaré esto mejor, pero al final por eso, porque hemos tenido ese horizonte, nuestra propuesta la hemos realizado principalmente de cara a los servicios que deben recibir los ciudadanos.]

Horrez gain, azpimarratu nahi dugu non kokatzen den gure proposamenaren aplikazioa. Guk irudikatu dugu euskararentzat foru lege bat izanen dela. Irudikatu dugu ofizialtasuna ezarriko dela lurralde osoan, herritar guztientzat hizkuntza eskubideak aitortuko direla. Gero lege horren garapen bat etorriko litzateke eta gero planifikazioa. Hain zuzen ere, hortxe kokatzen da gure proposamena, planifikazioaren arloan. Eta, planifikazio horren abiapuntu gisa,

Nafarroako errealitate soziolinguistiko desberdinak hartu ditugu kontuan. Eta, orain ikusiko dugun bezala, lau tipologia demolinguistiko proposatzen ditugu.

[Además de eso, queremos destacar dónde se sitúa la aplicación de nuestra propuesta. Nosotros hemos dibujado que para el euskera será una ley foral. Hemos dibujado que se establecerá la oficialidad en todo el territorio, que se reconocerán los derechos lingüísticos para todos los ciudadanos. Luego vendría un desarrollo de esa ley y después la planificación. Concretamente ahí se sitúa nuestra propuesta, en el ámbito de la planificación. Y como punto de partida de esa planificación, hemos tenido en cuenta las diferentes realidades sociolingüísticas de Navarra. Y, como veremos ahora, proponemos cuatro tipologías demolingüísticas.]

Hala ere, horrekin hasi baino lehen, ohar batzuk egin nahi ditugu erabili ditugun datuen inguruan. Datuak euskararen datu basetik hartuak dira eta datu baxu hori soziolinguistika klusterrarena da. Hor biltzen dira euskararen inguruko datu estatistiko guztiak eta Nafarroako datuak Nafarroako Estatistika Erakundearenak dira. Erabiliko dugun eskualdetzea ere hortik hartua da, Nafarroa 2000 zonifikaziotik. Horretaz gain, erran nahi genuen tipologiaen sailkapen hau egiteko guk zentsoan agertzen diren bi kategoria batu egin ditugula, euskaldunak gehi ia euskaldunak. Zentsoaren arabera euskaldunak dira euskara ongi ulertzen dutenak gehi euskaraz ongi hitz egiten dutenak eta ia euskaldunak dira euskara ongi edo nekez ulertzen dutenak eta nekez hitz egiten dutenak. Zergatik batu ditugun bi kategoria horiek? A priori behintzat uste dugulako horiek direla herritarren arretarako zerbitzuetan hizkuntza erabiltzen aktiboak izan daitezkeenak. Erdaldunak ere aktiboak izan daitezke, noski, baina aktiboentzat behintzat euskaldunak eta ia euskaldunak izanen lirатеke.

[Sin embargo, antes de comenzar con eso, queremos realizar algunas anotaciones sobre los datos que hemos utilizado. Los datos están tomados de la base de datos del euskera y ese dato bajo es del clúster sociolingüístico. Ahí se reúnen todos los datos estadísticos sobre el euskera y los datos de Navarra son del Instituto de Estadística de Navarra. La división de zonas que hemos utilizado también se ha cogido de ahí, de la zonificación de Navarra del 2000. Además de eso, queríamos decir que para hacer esta clasificación de tipologías hemos unido dos categorías que aparecen en el censo, los vasco parlantes y los casi vasco parlantes. Según el censo los vasco parlantes son los que entienden bien el euskera y lo hablan bien y los casi vasco parlantes son los que entienden bien o con dificultades el euskera y los que hablan con dificultad. ¿Por qué hemos unido estas dos categorías? Porque al menos a priori pensamos que esos podrían ser los ciudadanos más activos en utiliza la lengua en los servicios de atención. Los castellanoparlantes también pueden ser activos, claro, pero los más activos serían los vasco parlantes y los casi vasco parlantes.]

Azken ohar bat. Dakizuen bezala, datu hauek nahiko zaharkituak dira. 5.000 biztanletik gorako herrietan datuak 2011koak dira eta hortik beherakoetan 2001ekoak. Beraz, agian datu berriekin pixka bat aldatuko lirатеke orain aurkeztuko ditugun mapak.

[Un último apunte. Como saben, estos datos son bastante antiguos. Los datos de los pueblos de más de 5.000 habitantes son de 2011 y los de menos de eso de 2001. Por lo

tanto, quizá con datos nuevos podrían variar un poco los mapas que ahora vamos a presentar.]

Orduan, lau tipologia hauek aurkeztu ditugu, lau tipologia demolingüistiko. Lehenengoan egonen lirатеke euskaldunak gehi ia euskaldunak, herritarren ehuneko hamar bitartean diren eskualdeak. Bigarrenean, euskaldunak gehi ia euskaldunak ehuneko hamar eta berrogei bitartean egonen lirатеke. Hirugarrenean, ehuneko berrogei eta hirurogeitahamar bitartean. Eta laugarrenean ehuneko hirurogeitahamarretik gora euskaldunak eta ia euskaldunak.

[Entonces, presentaremos estas cuatro tipologías, cuatro tipologías demolingüísticas. En la primera estarían los territorios en los que los vascoparlantes y los casi vascoparlantes suponen hasta el diez por ciento. En la segunda, estarían los vascoparlantes y casi vascoparlantes entre el diez y el cuarenta por ciento. En la tercera, entre el cuarenta y el setenta por ciento. Y en la cuarta más del setenta por ciento serían vascoparlantes y casi vascoparlantes.]

Eman dizkizuegun txostenetan hau guztia taulen bidez aurkeztu dizuegu, tipologia bakoitzak dituen ezaugarri batzuk ere eman ditugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu ezaugarri horiek ematea gauza jakina delako planifikazioaren abiapuntuan beti kontuan hartu behar dela tipologia bakoitzak azken hamarkadetan egin duen bidea. Hori izan behar da abiapuntua. Orduan, zertzelada batzuk eman ditugu. Orain ez naiz horretan luzatuko. Nahi baldin baduzue gero solasten ahal gara horri buruz. Hona ekarri ditugu mapa batzuk nahi genuelako modu grafiko xamar batean ikustea nola gelditzen den tipologiaren kontu hau.

[En los informes que les hemos entregado hemos presentado todo esto mediante tablas y también hemos dado algunos detalles de cada tipología. Nos parece importante que se den esos detalles ya que se sabe que en el punto de partida de la planificación se debe tener siempre en cuenta la trayectoria de cada tipología en las últimas décadas. Ese tiene que ser el punto de partida. Entonces, daremos algunas pinceladas. Ahora no me voy a extender en eso. Si quieren luego podemos hablar de ello. Aquí hemos traídos algunos mapas porque queríamos ver en un modo gráfico cómo queda esta cuestión de las tipologías.]

Beraz, lehenengo tipologian, euskaldunak gehi ia euskaldunak ehuneko hamar bitartean diren eskualdeak, egonen lirатеke Erribera Garaiko eta Tuterako udalerrri guztiak eta Nafarroa erdialdeko udalerrri dezente, gehienak 1.000 biztanletik beherako udalerrriak izanik. Bigarren tipologian, ehuneko hamar eta ehuneko berrogei bitartean euskaldunak gehi ia euskaldunak, Nafarroako erdialdeko gehienak leudeke hor eta Pirinio aldeko batzuk ere bai. Hirugarren tipologian, Pirinio aldeko gehienak eta ipar mendebaldeko bakar batzuk. Eta laugarren tipologian ipar mendebaldeko gehienak eta Pirinio aldeko batzuk leudeke.

[Por lo tanto, en la primera tipología, en los territorios en los que los vascoparlantes y casi vascoparlantes suponen hasta el diez por ciento, estarían todos los municipios de la Ribera Alta y Tudela y muchos municipios del centro de Navarra, la mayoría de menos de 1.000 habitantes. En la segunda tipología, en la que los vascoparlantes y casi vascoparlantes suponen del diez al cuarenta por ciento, estarían la mayoría de los municipios del centro de Navarra y también algunos de la parte del Pirineo. En la tercera

tipología, la mayoría de la parte del Pirineo y algunos pocos del noroeste. Y en la cuarta tipología la mayoría del noroeste y también algunos de la parte del Pirineo.]

Tipologiena azalduta, orain bai ikusiko dugu herritarren eskubideak bermatzeko zein neurri eta zein epe proposatzen ditugun. Atal hau hiru zatitan azalduko dugu. Lehenengo zatian bat, bi eta hiru tipologietarako neurriak eta epeak egonen dira, bigarren zatian laugarren tipologia aztertuko dugu eta hirugarrenean, jada nire lankideak azalduko du haur eta gazteei buruzko atala.

[Una vez explicado lo de las tipologías, ahora vamos a ver qué medidas y qué tiempos proponemos para garantizar los derechos de los ciudadanos. Este apartado lo explicaremos en tres partes. En la primera parte estarían las medidas y tiempos de las tipologías una, dos y tres, en la segunda parte analizaremos la cuarta tipología y en la tercera parte ya mi compañera explicará el apartado sobre niños y jóvenes.]

Beraz, bat, bi eta hiru tipologiengatik kasuan, ezarri ditugun helburuak edo proposatzen ditugun helburuak hauek dira: helburu bat administrazioak herritarrei zerbitzuak elebizi ematea da eta bigarrena udalerriko eskualdeko gizarte bizitza euskaraz egiteko aukerak ematea. Bi helburu horiekin hori dituzue proposatzen ditugun neurriak. Ez dakit euskarazko txostena jarraitzen ari zareten edo gaztelaniazkoa. Neurriak euskarazko txostenean hamaikagarren orrian dituzue eta gaztelaniazkoan hamabigarren orrian. Hori duzue koadro batean. Ez da gure asmoa neurri guztiak zerrendatzea hemen, baina bai azaldu nahi dizuegula nola sailkatu ditugun neurri horiek. Ikusiko duzuen bezala, hemen beharbada diapositiban argiago ikusiko duzue, neurriak hiru multzotan daude sailkatuak. Multzorik nagusia izanen litzateke herritarrekiko harremanei begira hartu beharko liratekeen neurriak. Baina guk ulertzen dugu paraleloki derrigorrez beste bi bideak ere landu behar direla. Herritarrekiko harremanean neurri batzuk hartu behar dira, baina horrekin batera entitate barruan ere bai. Eta horrekin batera ulertzen dugu administrazioak hizkuntza sustatu behar duela udalerrir mailan. Beraz, udalerrirako sustapen neurri batzuk proposatzen dira. Entitate barruan ere bereizi ditugu bi azpimultzo. Batean langileekin lotutako neurriak daude, plantilla organikoak, hizkuntza eskakizunak, formazioa eta abar. Eta beste azpimultzoan daude administrazio barruko erabilerarekin lotutakoak.

[Por lo tanto, en el caso de las tipologías uno, dos y tres, estos son los objetivos que hemos establecido o que proponemos: un objetivo es que la administración ofrezca los servicios en ambas lenguas y el segundo objetivo es que se ofrezcan oportunidades para hacer vida social de los territorios del municipio en euskera. No sé si están siguiendo el informe en euskera o en castellano. En el informe en euskera las medidas están en la página once y en el de castellano en la doce. Eso lo tienen en un cuadro. No es nuestra intención enumerar aquí todas las medidas, pero sí que queríamos explicarles cómo hemos clasificado esas medidas. Como verán, quizá aquí en la diapositiva lo vean más claro, las medidas están divididas en tres grupos. El grupo mayor sería el de las medidas que habría que tomar de cara a las relaciones para con los ciudadanos. Pero nosotros entendemos que obligatoriamente de forma paralela también hay que trabajar los otros dos caminos. En la relación para con los ciudadanos hay que tomar algunas medidas, pero junto con eso también dentro de la entidad. Y a la vez entendemos que la

administración debe promocionar el euskera a nivel municipal. Por lo tanto, se proponen algunas medidas de fomento para el municipio. Dentro de la entidad también hemos diferenciado dos subgrupos. En uno están las medidas relacionadas a los trabajadores, a las plantillas orgánicas, requerimientos de lenguas, formación, etcétera. Y en el otro subgrupo están las relacionadas con los usos dentro de la administración.]

Beraz, atal nagusia herritarrekiko harremanari begira hartu beharreko neurriek betetzen dute. Ulertzen dugu herritarrek administrazioa jo dezaketela lau bideetatik: bata bide telematikoa da, bigarrena telefono bidez, hirugarrena aurrez aurrekoa litzateke, eta hori idatziz edo ahoz izan daiteke, eta laugarrenean sartu ditugu administrazioak herritarrek informatzeko erabiltzen dituen euskarriak. Beraz, neurri guztiak horren arabera sailkatuak daude eta ez ditut zerrendatuko luze joko lukeelako eta, azken finean, neurri guztietan aipatzen delako elebizi funtzionatzeko proposamenak.

[Por lo tanto, el apartado principal es el de las medidas que hay que tomar de cara a la relación para con los ciudadanos. Entendemos que los ciudadanos pueden acudir a la administración por cuatro vías: una es la vía telemática, la segunda mediante teléfono, la tercera sería cara a cara, y eso puede ser por escrito o de forma oral, y en la cuarta hemos metido los soportes que utiliza la administración para informar a los ciudadanos. Por lo tanto, todas las medidas están clasificadas según eso y no voy a enumerarlas todas porque nos llevaría mucho tiempo y al final porque en todas las medidas se nombran propuestas para funcionar en ambas lenguas.]

Beraz, bat, bi eta hiru tipologietarako proposatzen ditugun neurriak berdinak dira eta non dago gakoa edo non dago aldea? Epeetan. Epe desberdinak proposatzen ditugu hiru tipologietarako. Lehen tipologiarako 50 urteko epea proposatzen dugu, bigarreneko 35eko eta hirugarreneko 20 urtekoa. Horrek erran nahi du epe hori igaro orduko helburuak eta neurriak bete beharko direla eta administrazioak herritarrei zerbitzu elebidunak emanen dizkiela.

[Por lo tanto, las medidas que proponemos para las tipologías uno, dos y tres son las mismas. ¿Y dónde está la clave o la diferencia? En los plazos. Proponemos tiempos diferentes para las tres tipologías. Para la primera tipología proponemos un plazo de 50 años, para la segunda de 35 años y para la tercera de 20. Eso quiere decir que para cuando pase ese plazo hay que cumplir las medidas y los objetivos y que la administración ofrecerá a los ciudadanos servicios bilingües.]

Orain joan gara laugarren tipologia ikustera. Aparteko trataera eman diogu laugarren tipologiari kontuan hartuta zein ezaugarri dituzten udalerrri edo eskualde hauek. Bertan, elebidunen dentsitatea handia da, euskarak jarraipena izan du belaunaldiz belaunaldi batez ere familia transmisioaren bidez eta euskarak bizindar handi xamarra du, ez gizarte bizitzaren arlo guztietan, baina bai gehienetan: familian, lagun artean, eskolan, aisialdian, kultura adierazpenetan, elkartegintzan eta abar. Eta inportantea da kontuan hartzea tipologia honetako udalerriek betetzen duten funtzioa. Hau da, ikuspegi ekolinguistiko batetik, minorizatuta dauden hizkuntzek, edozein hizkuntza minorizatuak, baita euskarak ere, behar ditu bere garapena esparru funtzional guztietan bermatuko duten espazio edo gune naturalak.

Zertarako? Ez bakarrik duen bizindar horri eusteko edo bizindar hori mantentzeko, baizik eta baita ere bizindar hori inguruetara hedatzeko.

[Ahora vamos a ver la cuarta tipología. Le hemos dado un tratamiento especial a la cuarta tipología teniendo en cuenta qué características tienen estos municipios o regiones. En esos, la densidad de bilingües es grande, el euskera ha tenido continuidad generación tras generación sobre todo por la transmisión familiar y el euskera tiene una fuerza vital muy grande, no en todos los ámbitos de la vida de las personas, pero sí en la mayoría: en familia, entre amigos, en la escuela, en el tiempo libre, en las expresiones culturales, en el asociacionismo, etcétera. Y es importante tener en cuenta la función que cumplen los municipios de esta tipología. Es decir, desde un punto de vista ecolingüístico, las lenguas que están minorizadas, cualquier lengua minorizada, al igual que el euskera, necesita espacios y zonas naturales que garanticen su desarrollo en todos los espacios funcionales.]

Horregatik diogu administrazioak neurri bereziak hartu behar dituela tipologia honetarako. Eta neurri garrantzitsuena izanen litzateke elebitasun simetrikoa gainditzea. Hau da, gainditu egin behar da administrazioaren jardun guztia beti bi hizkuntzei trataera berdina emanaz egiteko ideia hori. Eta euskara lehenetsi behar da eta hori egin behar da beti ere erdal hiztunen eskubideak bermatuta.

[Por eso decimos que la administración tiene que tomar medidas especiales para esta tipología. Y la medida más importante sería superar el bilingüismo simétrico. Es decir, hay que superar esa idea de dar siempre el mismo trato a las dos lenguas en toda actividad de la administración. Y hay que dar prioridad al euskera y eso hay que hacerlo garantizando también los derechos de los castellanoparlantes.]

Hau guztia erranda, jarri ditugun helburuak hauek dira: lehenengoa euskarari lehentasunezko trataera ematea da, bigarrena administrazio barruko funtzionamendua euskaraz izatea eta hirugarrena udalerriko eta eskualdeko gizarte bitzita euskaraz izan dadin bermatzea da.

[Dicho todo esto, los objetivos que hemos establecido son los siguientes: el primero es dar al euskera un tratamiento prioritario, el segundo que el funcionamiento interno de la administración sea en euskera y el tercero es garantizar que la vida en sociedad del municipio y de la región sea en euskera.]

Neurriak eskema beraren arabera eman ditugu. Ez ditut zerrendatuko, baina badira orain egin dudana sarreratxo honekin lotutako pare bat neurri azpimarratu nahi ditugunak. Horietako bat prebentzioarekin lotuta dago. Hau da, udalerrri eta eskualde hauetarako hirigintza, industria, merkataritza edota turismo azpiegitura proiektuak egin behar direnean, beharrezkoa da alde aurretik proiektu horiek hizkuntza minorizatuan izanen duten eragina neurtzea eta neurtze ez ezik, prebentzio neurriak hartzea ere bai. Eta gero, euskara lehenesteko kontu horrekin lotuta, ikusiko duzue neurrietan aipatzen direla proposamen batzuk, adibidez, administrazioak herritarrari lehen hitza euskaraz egitearekin lotuak, edozein bidetatik jotzen dutela ere herritarrek telematikoki edo telefono bidez edo aurrez aurrekoan edo, lehen hitza euskaraz egitea. Eta gero beti aukera ematea herritarrari hizkuntza hautatzeko. Hori egin daiteke baita webgunean ere. Webgune bat zabalduko litzateke euskaraz, baina beti hor egonen litzateke

aukera hizkuntza aldatzeko. Alegia, euskara lehenesten ahal da, erdaldunen hizkuntza eskubideak beti bermatuta, baina egingarria da hori bermatuta. Tipologia honetarako hamar urteko epe bat proposatu dugu.

[Las medidas las hemos dado según el mismo esquema. No las voy a enumerar, pero queremos destacar un par de medidas relacionadas con esta introducción que he hecho ahora. Una de ellas está relacionada con la prevención. Es decir, que cuando haya que hacer proyectos de infraestructuras de turismo, comercio, industria o urbanismo para estas regiones, es imprescindible que antes se mida el impacto que tendrán esos proyectos en la lengua minorizada y, además de la medición, tomar medidas de prevención. Y luego, con relación a esa cuestión de priorizar el euskera, verán que en las medidas se citan algunas propuestas, por ejemplo, relacionadas con que la administración le diga la primera palabra en euskera al ciudadano, acudan por la vía que acudan los ciudadanos, ya sea telemáticamente o por teléfono o presencialmente, que la primera palabra sea en euskera. Y luego dar siempre la posibilidad a los ciudadanos de que elijan la lengua. Eso se puede hacer también en la página web. Una página web se abriría en euskera, pero ahí siempre tendrían la posibilidad de cambiar la lengua. Es decir, se da prioridad al euskera, siempre garantizando los derechos lingüísticos de los castellanoparlantes, pero es realizable garantizando eso. Para esta tipología hemos propuesto un plazo de diez años.]

Eta jada hirugarren atala Mindegia andereak azalduko dizue.

[Y ya la tercera parte se la explicará la señora Mindegia.]

SRA. MINDEGIA ILARREGI: Eguerdi on. Haurrak eta gazteak adin tarteari aparteko trataera eman nahi izan diogu hortxe kokatzen direlako euskaldunen kopururik handiena, eskolaren bidez euskara ikasi duten haur horienak. Eta trataera berezia behar dute Nafarroa osoan.

[Buenos días. Hemos querido dar un tratamiento especial a los niños y jóvenes ya que ahí se encuentra el mayor número de vasco parlantes, el de esos niños que han aprendido euskera mediante la escuela. Y necesitan un tratamiento especial en toda Navarra.]

Lehenengo eta bigarren tipologietarako zenbait neurri ahozko eta idatzizko arreta ele bietan ematera bideratua daude. Hirugarrenean eta laugarrenean berriz, suposatzen da arreta hori bermatuta egon beharko litzakeela. Eta gero, azkenengo bi tipologia horietan, egin beharko litzakeena zen arreta berezia eman hizkuntza erregistro diferenteei eta tokiko hizkera sustatzeari. Idatzizko arretan, alde batetik ditugu dokumentu finkoak eta errotulazioa, eta bi tipologietarako bost urteko epea eman dugu hori egiteko. Bestetik daude finkoak ez diren bestelako dokumentuak eta informazioa ematen dutenak. Kasu horretan, lehenengo tipologiari hamar urteko epea eta bigarren tipologiari bost urteko epea ematen zaio.

[Algunas de las medidas para la primera y segunda tipología están dirigidas a ofrecer una atención oral y escrita en ambas lenguas. En la tercera y cuarta, en cambio, se supone que esa atención debería estar garantizada. Y luego, en esas dos últimas tipologías, lo que se debería hacer sería dar una atención especial a los diferentes registros lingüísticos y al impulso de la lengua local. En la atención por escrito, por un

lado, tenemos los documentos fijos y la rotulación, y hemos dado un plazo de cinco años para realizar eso en las dos tipologías. Por otro lado, están el resto de documentos que no son fijos y que ofrecen información. En ese caso, a la primera tipología le hemos dado un plazo de diez años y a la segunda de cinco.]

Gainerako ataletan ere, azken bi epe hauek finkatu ditugu, hamar eta bostekoak. Beraz, ahozko arretan egin beharko litzakeena zen ahozko arreta lortze aldera arreta postu elebidunak jarri, azpikontraten enpleguetan hizkuntza irizpideak ezarri eta erabilera erreaktibatzeke protokoloak ezarri. Zerbitzuaren edukietan berriz, euskarazko jardueran programatu beharko dira, euskarazko eskolatik kanpoko ekintza erakargarriak urte osoan eskainiz eta erabilera, ahozkotasuna eta erregistroen sustapenerako jarduera espezifikoak antolatu. Hiru eta laugarren tipologietan, esan dugun bezala, idatzizko eta ahozko arreta bermatuta egon beharko litzake eta soilik zerbitzuen edukietarako emango genieke zero bost urteko epea hirugarren tipologiari, zerbitzu eta aisialdi eskaintza osoa euskaraz emateko eta ahozkotasuna, tokiko hizkerak eta hizkuntza erregistroak erabili eta sustatzeko.

[En el resto de apartados, fijaremos estos dos plazos, de diez y cinco años. Por lo tanto, lo que se debería hacer en la atención oral sería establecer puesto de atención bilingües de cara a lograr una atención oral, establecer criterios de lengua en los empleos de las subcontrataciones y establecer protocolos para reactivar el uso. En los contenidos de los servicios, en cambio, se tendrán que programar en la actividad en euskera, ofreciendo actividades extraescolares interesantes en euskera durante todo el año y organizando actividades específicas para el fomento de la oralidad y el registro. Como hemos dicho, en la tercera y cuarta tipología la atención escrita y oral debería estar garantizada y solamente para los contenidos de los servicios le daríamos un plazo de cero a cinco años a la tercera tipología, para ofrecer todas las actividades de tiempo libre y servicios en euskera y para utilizar e impulsar la oralidad, la variedad lingüística de cada zona y los registros lingüísticos.]

Gero ere, egokia ikusi dugu ia-ia hutsetik abiatu behar diren udalerrien tipologietarako, hau da, lehenengo eta bigarren tipologietarako, herritarrentzako arreta guneeetan pixka bat atal berezi bat egitea. Tipologia hauetan jarri ditugu helburuak lortze aldera 50 eta 35 urteko epea, hurrenez hurren. Baina epe motz-ertainera beste neurri batzuk ere beharko ziren herritarrei arreta egin ahal izateko. Beraz, lehenengo tipologiako udalerrri batek 10 urteko epea izanen luke proposatzen ditugun neurriak ezartzeko eta bigarren tipologiakoak 5 urtekoa.

[Luego, también consideramos adecuado para las tipologías de los municipios que tienen que partir prácticamente de la nada, es decir, para las tipologías uno y dos, que la atención para los ciudadanos tenga un poco un apartado especial en las zonas. En estas tipologías hemos puesto unos plazos de 50 y 35 años para lograr los objetivos, respectivamente. Pero a corto-medio plazo se necesitarían también otras medidas para poder atender a los ciudadanos. Por lo tanto, un municipio de la primera tipología tendría un plazo de 10 años para establecer las medidas que proponemos y uno de la segunda tipología 5 años.]

Telematikoa eta telefono bidezkoa egituratu eta abian jarri behar da. Egundako beste tokitan jada dagoenez, erraza da horrelakoak egitea. Idatzizkoa, dokumentu finkoetarako, lehen esan

dudan bezala, erabiltzen diren ereduak egokitu eta ezartzeko eta errotulazioa bietan jartzeko. Eta gero, dokumentu ez finkoetan eta herritarrei igortzen zaion bestelako informaziorako giza baliabideak egokitu beharko litzateke, arreta postu elebidunak jarri eta prozedurak sortu. Lehenengo tipologiarako, hasiera batean eta salbuespeneko neurri bezala, itzulpen zerbitzuak ere erabiliko ziren, baina horiek izango ziren hasiera batean egituratu arte bestelakoa.

[La atención telemática y por teléfono hay que estructurarla y ponerla en marcha. Al igual que en la actualidad se da en otros lugares, es fácil hacerlo. Como he dicho antes, hay que adecuar y establecer los modelos que se utilizan para lo escrito, los documentos fijos y poner los rótulos en ambas lenguas. Y luego, habría que adecuar los recursos humanos para la información que se les envía a los ciudadanos y en los documentos no fijos, establecer puestos bilingües y crear procedimientos. Para la primera tipología en un principio y como medida extraordinaria se utilizarían servicios de traducción, pero eso solo sería al principio hasta que se estructurase todo.]

Aurrez aurreko arretari dagokionez, esan behar da edozein administraziotan hizkuntzen erabileraz aritzerakoan onuragarri iritzi ohi zaiola arreta postu elebidunak erabakitzeko lurralde osoan eta entitate guztian aplikatzeko formula zehatz bat izatea. Baina hori egitea ezinezkoa suertatzen zaigu Nafarroak dituen ezaugarriak ikusita. Nafarroa oso heterogeneoa da, 272 udalerrri ditu, horien artetik 189 mila biztanletik beherakoak dira eta ezin zaio trataera bera eman udalerrri txiki bati eta handi bati.

[En lo referido a la atención presencial, hay que decir que cuando se ha hablado del uso de las lenguas en las administraciones les suele parecer beneficioso tener una fórmula concreta para aplicar en todo el territorio y en toda la entidad para decidir puestos de atención bilingües. Pero hacer eso nos resulta imposible viendo las características que tiene Navarra. Navarra es muy heterogénea, tiene 272 municipios, de los cuales 189 tienen menos de mil habitantes y no se le puede dar el mismo tratamiento a un municipio pequeño que a uno grande.]

Beraz, helburua denez herritarrei harreman normalak ematea Nafarroako bi hizkuntzetan, neurri desberdinak jarri behar dira eta era desberdinean mailakatu behar dira, esan dudan bezala, ez delako gauza bera 900 biztanleko herri bat eta arreta postu bakarra duena edo lau arreta postu dituen elebitasuna sortu aldera. Edonola ere, herri txiki batek ere abantaila izan dezake. Demagun udalerrri txiki batean, arreta postu bakarra duena, eta pertsona horrek erabakitzen duela euskara ikastea. Bere prozesua bukatutakoan konponduta dugu jada elebitasun hori ematea. Edo, bestela, lanpostu berria sortzerakoan jarriko baziren elebiko lanpostuak konponduta duzu. Beste toki batzuetan, luzera joko du horrelako neurriak hartzeak.

[Por lo tanto, como el objetivo es ofrecer a los ciudadanos unas relaciones normales en las dos lenguas de Navarra, hay que establecer medidas diferentes y hay que graduarlas de forma diferente porque, como he dicho, no es lo mismo un pueblo de 900 habitantes y que tiene un único puesto de atención o que tiene cuatro, a la hora de crear bilingüismo. De cualquier forma, un pueblo pequeño también podría tener ventajas. Imaginemos que en un municipio pequeño, que tiene un único puesto de atención, esa persona decide aprender euskera. Al término de su proceso tendríamos resuelto el hecho de que se dé

ese bilingüismo. O, si no, si al crear un nuevo puesto de trabajo se pusieran puestos bilingües estaría solucionado. En otros lugares llevará más tiempo tomar medidas así.]

Gero, aipatu dudan Nafarroako heterogeneotasunak kontutan hartuta, hiru sailkapen desberdin ere egin ditugu. Aurreko tipologiaren arabera aparte utzita, alde batetik jarri ditugu toki entitate txikiak, hau da, 1.500 biztanle bitartekoak, eta horretan Nafarroan 202 udal daude, eta hemen ere kontzejuak egongo lirarteke. Ditutzen ezaugarriak dira normalean idazkaritza dutela, lanpostu bakarra, askotan partekatuta beste udalerriekin, nahiz eta igual langileren bat gehiago edo izan. Batzuetan administratiboa, albientea edo zerbitzu anitzeko langilea dute. Bestelako zerbitzuak izatekotan mankomunitateak dira, esate baterako, hondakinen bilketa, gizarte zerbitzuak eta horrelakoak. Hirigintza, kultura edo kirol zerbitzu edo bestelakorik izatea nahiko salbuespeneko da. Eta normalean langile guztiak dute harremana herritarrekin.

[Luego, teniendo en cuenta las heterogeneidades de Navarra que he comentado, hemos hecho tres clasificaciones diferentes. Dejando de lado la anterior de tipologías, por un lado, hemos puesto las entidades pequeñas, es decir, de hasta 1.500 habitantes, y de esos en Navarra hay 202 municipios, y aquí estarían también los concejos. Sus características son que normalmente tiene una secretaria, un único puesto de trabajo, muchas veces compartido con otros municipios, aunque igual tenga algún que otro trabajador más. A veces tienen administrativo, alguacil o trabajador de servicios múltiples. De tener otros servicios estos son compartidos, por ejemplo, la recogida de basuras, servicios sociales y similares. El hecho de tener servicios de urbanismo, cultura o deporte es bastante una excepción. Y normalmente todos los trabajadores tienen relación con el ciudadano.]

Honekin zein neurri ezarriko genituzke epe motz-ertainera? Euskara ikasteko interesa izan dezaketen langileen prospekzioa egitea, langileei euskara ikasteko aukera eman eta baliabideak eskaintzea, plantilla organikoetan hizkuntza eskakizunak ezartzea eta lanpostuak hutsik gelditu ahala, langile elebidunak kontratatzea edo ikasteko baliabideak eta epe bat ematea arreta postu elebiduna izan dadin.

[¿Con esto qué medidas estableceríamos a corto-medio plazo? Que se haga una prospección de los trabajadores que podrían tener interés en aprender euskera, ofrecer a los trabajadores la oportunidad de aprender euskera y recursos, establecer el requerimiento lingüístico en las plantillas orgánicas y a la vez que se van quedando libres puestos de trabajo contratar trabajadores bilingües u ofrecer recursos para aprenderlo y un plazo para que el puesto de atención sea bilingüe.]

Bestetik izango genituzke toki entitate ertainak, 1.500 – 5.000 biztanle bitartekoak. Nafarroan 48 udal ditugu. Hemen ere hainbat mankomunitate edo sartuko ziren. Honen ezaugarriak zentzuk diren? Arreta postuak izan ohi dituztela, idazkaritza gainera bestelako zerbitzuak ere badituztela, hirigintza, ogasuna, kultura eta abar eta bakoitzean gutxienez langile bat. Normalean, hondakinen bilketa, gizarte zerbitzua eta antzeko zerbitzuak amankomunean dituzte. Gerta litekeena da ez izatea langile guztiak harreman zuzena herritarrekin. Honetarako jartzen ditugun neurriak udal txikietan bezalakoak dira, baina plantilla organikoetan hizkuntza eskakizunak ezartzerakoan gutxienez eta lehentasunez herritarrei arreta orokor zuzena egiten

dien lanpostuak kontuan hartuko lirateke. Eta baita ere herritarren arreta zuzena behar duten zerbitzu edo atal bakoitzean arreta postu elebidun bat jarri aurreneko fasean eta epe ertain-luzean guztiak.

[Por otro lado, tendríamos las entidades locales medianas, de entre 1.500 y 5.000 trabajadores. En Navarra tenemos 48 municipios. Aquí también entrarían diversas mancomunidades. ¿Cuáles son las características de estos? Suele tener puestos de atención, además de secretaría tienen otros servicios como urbanismo, hacienda, cultura, etcétera y en cada uno al menos un trabajador. Normalmente, la recogida de residuos, los servicios sociales y servicios similares los tienen compartidos. Lo que podría pasar es que todos los trabajadores no tuvieran relación directa con los ciudadanos. Las medidas que ponemos aquí son iguales que las de los municipios pequeños, pero a la hora de establecer los requerimientos lingüísticos en las plantillas orgánicas, habría que tener en cuenta como mínimo y con prioridad los puestos de trabajo que atienden de manera general a los ciudadanos. Y también habría que poner un puesto de atención bilingüe en cada ámbito o servicio que necesite una atención directa con el ciudadano en una primera fase y a medio-largo plazo todos.]

Gero, toki entitate handiak ditugu, 5.000 biztanletik gorakoak. Nafarroan 22 udal daude. Ezaugarriak dira denak atal eta zerbitzu desberdinak dituztela eta horietako bakoitzean hainbat arreta postu. Eta askoz ere zehaztuago dago zein langilek duten harreman zuzena herritarrekin. Neurriak izango lirateke toki ertainetarako berberak, gehituta epe luzera herritarrekin harremana duten arreta postu guztiak elebidunak izan beharko zirela.

[Luego, tenemos entidades locales grandes, de más de 5.000 habitantes. En Navarra hay 22 municipios. Sus características son que todas tienen ámbitos y servicios diferentes y en cada uno de ellos diversos puestos de atención. Y está mucho más definido qué trabajadores tienen una relación directa con el ciudadano. Las medidas serían las mismas que las de las entidades medianas, sumando que a largo plazo todos los puestos que tienen relación directa con el ciudadano deberían ser bilingües.]

Hau guztia gauzatzeko bitartekoak beharrezkoak dira. Administrazioek era eta neurri askotako lanak egiten dituzte eta horretarako bitartekoak ere jartzen dituzte. Inbertsioak egiten dira herritarrei eta gizarteari onurak ekartzeko eta bistan da arlo honetan ere inbertsioak ere egin beharko liratekeela. Egia da erlatiboki erraza eta merkea dela herritarrek zerbitzu mota batzuetan ele biak aukeran izatea, adibidez telefonikoan, telematikoan eta idatzizkoan. Baina, aldi berean, kontutan hartu behar da zabala dela jorratu behar den eremua: tokiko entitate publikoak zein udalerrriak, lurralde osoa eta foru administrazioa eta administrazioiko bestelako organismoak ere.

[Para llevar a cabo todo esto se necesitan medios. Las administraciones hacen trabajos de todo tipo y forma y para eso ponen medios. Se hacen inversiones para traer beneficios a los ciudadanos y a la sociedad y está claro que en este ámbito también se deberían hacer inversiones. Es cierto que relativamente es fácil y barato que los ciudadanos puedan elegir entre las dos lenguas en algunos tipos de servicios, por ejemplo, por teléfono, telemáticamente o por escrito. Pero, al mismo tiempo, hay que tener en cuenta que terreno a cubrir es extenso: tanto entidades públicas como municipios, todo el

territorio y la administración foral y también diferentes organismos de la administración.]

Nafarroako Gobernuako hizkuntza politikaren egitura organikoak egokia izan behar du, beraz, lan horretarako. Giza baliabideak eta laneko tresnak sustapen lanerako eta egitekoen neurrirako eratu edota egokitu behar dira. Giza baliabideetan arlo teknikoa ezagutzen duten sustapeneko langileak beharko dira proiektu edo plan horien diseinua zein exekuzioa ahalik eta zuzenen eta egokien gidatzeko teknikoki, bai Foru Gobernuaren hizkuntza politika departamentuan, bai tokiko administrazioetan. Lotura egokia beste arloekin egin beharko da: arlo juridikoa, komunikazio arloa eta harreman publikoetan. Elkarlana aipatu arlo horiekin eta administrazio osoan sustapen lanean ari diren beste teknikariekin, arloko ezagutza zein esperientzia errendimendua ahalik eta handiena ateratze aldera. Eta hurreneko urteetan gutxienez itzulpen eta euskarazko formazioaz arduratuko diren langile gehiago beharko dira, lurralde osoko formazio programa egokituekin, egiaztapen zerbitzuak eta horrelakoak.

[La estructura orgánica de la política lingüística del Gobierno de Navarra tiene que ser adecuada para ese trabajo. Hay que crear o adecuar los recursos humanos y las herramientas de trabajo para los trabajos de fomento y para las medidas de las labores. En los recursos humanos se necesitarán trabajadores de fomento que conozcan el campo técnico para conducir técnicamente de la manera más correcta y adecuada el diseño y ejecución de esos proyectos o planes, tanto en el departamento de política lingüística del Gobierno Foral como en las administraciones locales. Se necesitará una relación adecuada con otros campos: el ámbito jurídico, el ámbito de la comunicación y en las relaciones públicas. Hay que nombrar el trabajo conjunto con esos ámbitos y con otros técnicos que estén realizando trabajo de fomento en toda la administración, de cara a obtener el mayor conocimiento del ámbito y el mayor rendimiento de la experiencia. Y al menos en los próximos años se necesitarán más trabajadores que se ocupen de las traducciones y de la formación en euskera, con programas de formación adecuados, servicios de verificación y similares en todo el territorio.]

Bestelako baliabideak ere beharko dira. Ikerketak eta garapenak ezinbesteko bidelagunak behar dute izan, ez soilik ohiko arlo akademikoetan, baizik eta abian jarriko diren prozesuen antolaketan zein garapenean. Tresna informatiko eguneratuak diseinatzeko unea izanen da, abian jartzen diren proiektuak eraginkortasunez exekutatzeko laguntzeko. Planen diseinurako, inplementaziorako eta ebaluaziorako izan beharko lukete, orain arte ez baitira sortu, eta erabili diren bitartekoak nahiko zaharkituak eta ez funtzionalak suertatzen direlako.

[También se necesitarán diferentes recursos. Las investigaciones y desarrollos tienen que ser acompañantes de camino obligatoriamente, no solo en el ámbito académico común, sino también en la planificación y desarrollo de los procesos que se vayan a poner en marcha. Será el momento de diseñar herramientas informáticas actualizadas, para ayudar a ejecutar de forma eficaz los proyectos que se ponen en marcha. Deberían ser para el diseño, implementación y evaluación de los planes, ya que hasta ahora no se han creado, y los medios que se han utilizados resultan bastante anticuados y no funcionales.]

Baina baditugu ere aintzat hartu beharrekoak. Toki administrazioa berrantolatzeke foru legea aurrera ateraz gero, eskualdatze berria aukera ezin hobea izan daiteke aipatu diren hainbat zerbitzu baliabideak optimizatuz egituratu eta emateko. Eta, bestetik, haztapenean den administrazioa elektronikoa ele bietarako hasieratik prestatzeak abantaila operatibo handia emango lioke administrazio osoari eta bereziki herritarren hizkuntza eskubideei.

[Pero también teneos cuestiones a tener en cuenta. Tras sacar adelante la ley foral para reorganizar la administración local, la nueva transferencia sería una oportunidad inmejorable para estructurar y ofrecer diversos servicios que se han comentado optimizando los recursos. Y, por otro lado, el hecho de preparar desde el principio en las dos lenguas la administración electrónica que se está tentando le daría una gran ventaja operativa a toda la administración y sobre todo a los derechos lingüísticos de los ciudadanos.]

Bukatzeko, ezin aipatu dokumentu honek legezko testuinguru berri batean Nafarroako herritarren zerbitzuak ele bietan normal jaso ahal izateko ikuspegiez eta neurriez diharduela. Lan berri bat da, nahiz eta Giza Eskubideen Adierazpena 1948koa izan, Konstituzioa 1978koa, Espainiak sinatu eta berretsi duen Europako Karta 1992koa eta Foru Legeak 30 urte baino gehiago izan. Bertako hizkuntzari zein hitzunei eragin zaien egoera zuzentzeari buruzkoa da oraindik ere lan saio honen gaia, Nafarroako pertsonen eskubideak betetzeari buruz bezain funtsezko gaia. Nafarroako hizkuntza berekien aberastasun naturala kudeatzea administrazioaren betebeharra da. Horretarako, ezinbestean beharrezkoa da lurralde osorako hizkuntza eskubideak aitortzea, ofizialtasuna ezartzea, hizkuntza planifikazio egokia egitea eta behar diren baliabideak jartzea. Hori izanen da hizkuntza berreskuratu, bertako dibertsitate naturalari tokia eman eta herritarren zerbitzuetan normaltasuna lortzeko bidea. Eta normaltasuna onuragarria da pertsonentzat, giza taldeentzat eta bizikidetzarako. Eskerrik asko.

[Para finalizar, no puede dejar de decir que este documento trabaja en un contexto legal con las perspectivas y medidas para que se puedan recibir de forma normal los servicios de los ciudadanos de Navarra en euskera. Es un trabajo nuevo, a pesar de que la Declaración de los Derechos Humanos sea de 1948, la Constitución de 1978, la Carta Europea que España ha firmado y ratificado de 1922 y a pesar de que la Ley Foral tenga más de 30 años. El tema de esta sesión trata sobre corregir la situación que se le ha provocado a la lengua local y a los hablantes, un tema que es tan importante como el cumplimiento de los derechos de las personas de Navarra. La gestión de la riqueza natural de las lenguas propias de Navarra es una labor de la administración. Para ello, obligatoriamente es imprescindible que se declaren los derechos lingüísticos para todo el territorio, que se establezca la oficialidad, que se haga una planificación lingüística adecuada y que se pongan los recursos necesarios. Ese es el camino para recuperar la lengua, para dar lugar a la diversidad natural y para lograr la normalidad en los servicios de los ciudadanos. Y la normalidad es beneficiosa para las personas, grupos de personas y para la convivencia. Muchas gracias.]

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko Nafarroako udaleko euskara teknikarien sareko ordezkariet egindako azalpenagatik eta emandako argibideengatik. Orain, lehen esan dugun bezala, Batzordeetan erabiltzen dugun ohiko prozedurara itzuliko gara eta, beraz, parlamentu

taldeen hitza hartzeko momentua izango da. Handienetik hasiko gara. Geroa Bai Taldetik, Martínez jauna, zurea da hitza.

[Muchas gracias a las técnicas de la red municipal de técnicos de euskera de Navarra por las explicaciones ofrecidas y por la información dada. Ahora, como hemos dicho antes, volvemos al procedimiento habitual de las Comisiones y, por lo tanto, es el omento de que los grupos parlamentarios tomen la palabra. Empezaremos por el mayor. Por parte de Geroa Bai señor Martínez, tiene usted la palabra.]

SR. MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA: Eskerrik asko, presidente jauna. Ongi etorriak izan zaitezte, Arburua, Lizeaga eta Mindegia andereak. Ez bakarrik ongi etorriak Geroa Bai taldearen izenean, benetan gure esker ona azaldu nahi dizuet egunero egiten duzuen lanagatik, eta ez hori bakarrik, gaur aurkeztu diguzuen txostenagatik ere gure eskerrik beroena eta zorionik txalagarriena.

[Muchas gracias, señor Presidente. Bienvenidas, señoras Arburua, Lizeaga y Mindegia. No solo queremos darles la bienvenida en nombre de Geroa Bai, sino también nuestro más sincero agradecimiento por el trabajo que hacen a diario y no solo eso, también queremos darles las gracias y la sincera enhorabuena por el informe que hoy nos han presentado.]

Ofizialtasunaz ari gara nolabait. Argi eta garbi, Gero Bai beti euskararen ofizialtasunaren alde azaldu da eta gaur ere hori ere azpimarratu nahi dut. Zer gertatzen da? Ofizialtasuna Nafarroan lortzeko gehiengo politikoa behar da. Une honetan ez daukagu gehiengo politikoa hori, beharrezkoa den gehiengo politikoa hori. Eta, gainera, gure ustez, hainbat buelta eman diogu gaiari eta uste dugu ofizialtasuna aitortzeko euskararen lege batean LORAFNA delakoaren 9. artikulua aldatu beharra dagoela edo egon daitekeela, beharrezkoa dela susmatzen dugu, eta horrek ofizialtasunaren aitortpena edo adierazpena zaildu egiten du benetan. Momentu honetan ikusten duzue zenbat gauden hemen eta zenbat mintzatuko garen. Ez gara gehiengoa, zoritxarrez.

[De algún modo hablamos de la oficialidad. Geroa Bai se ha posicionado claramente a favor de la oficialidad del euskera y hoy también quiero destacar eso. ¿Qué ocurre? Que para lograr la oficialidad en Navarra se necesita la mayoría política. En este momento no tenemos esa mayoría política. Y, además, en nuestra opinión, le hemos dado muchas vueltas al tema y creemos que para declarar la oficialidad en una ley del euskera hay o habría que cambiar el 9º artículo de la llamada LORAFNA, sospechamos que es necesario, y eso dificulta realmente la declaración de la oficialidad. Ya ven cuántos estamos aquí en este momento y cuántos hablaremos. Desgraciadamente, no somos la mayoría.]

Hala eta guztiz ere, Geroa Bai Taldearen ustez euskararen legeak argi eta garbi esaten du, eta honi eutsiko diogu, euskarak babesa eta sustapena behar duela eta babestu eta sustatu egin behar dugula. Maila horretan, neurri horretan, zuek aipatutako datu eta proposamen tekniko konkretuak ontzat ematen ditugu, kontutan hartzen ditugu, guztiz beharrezkoak izan direlako eta izango direlako. Euskararen lege berri bat egiten badugu edo daukagun euskararen lege

hau aldatzea erabakitzen badugu, zuek aipatutako neurri konkretu horiek, neurri guztiz teknikoak diren neurri horiek, kontutan hartu beharrezkoak direlako.

[Sin embargo, en opinión de Geroa Bai la ley del euskera dice claramente, y nos aferraremos a esto, que el euskera necesita protección y fomento y que lo tenemos que proteger e impulsar. En ese nivel, en esa medida, damos por buenos los datos y propuestas técnicas concretas que ustedes han comentado, la tenemos en cuenta, ya que han sido totalmente necesarias y lo serán. Si hacemos una nueva ley del euskera o si decidimos modificar esta ley del euskera que tenemos, esas medidas concretas que ustedes han comentado, medidas totalmente técnicas, hay que tenerlas en cuenta.]

Gure planteamendua momentu honetan, eta esan dudan bezala ofizialtasunaren aldekoak gara, baina gehiengoa ez dugun neurri horretan, guk euskararen babesa eta sustapena guztiz bultzatuko dugu eta uste dugu euskararen legeak behar duen aldaketa bide horretatik joan behar dela, babesa eta sustapena. Eta hori lortzeko eta hori egiteko, neurri konkretuak beharko dira zonalde desberdinetan. Momentu honetan legeak argi eta garbi markatzen ditu hiru zonalde, euren izen propioekin: zonalde euskalduna, zonalde mixtoa eta zonalde ez euskalduna. Hori aldatzea, izendapen hori ere aldatzea, legez egin beharko genuke. Guk momentu honetan lantzen ari garen proposamen bat non babesa eta sustapena aurrera eramán daitekeen progresibotasunez, eremuka eta denboraz. Horretan guztiz bat gatoz zuen planteamendu orokorrarekin behintzat, uste dugulako badirela baipasak, orain Donostiara joaten garenean sufritzen ditugun baipasak, legea baipatzeko, legalki baipatzeko eta Nafarroaren errealitate soziolinguistikoa kontutan hartuta babes eta sustapen neurri desberdinak martxan jartzeko. Desberdinak izango direnak zonalde bakoitzean, noski, baina azken finean nafartarron hizkuntz eskubideak ere bermatu egingo dituzten neurri konkretuak.

[Nuestro planteamiento en este momento, y como he dicho estamos a favor de la oficialidad, pero en esta dimensión en la que no tenemos la mayoría, es que nosotros vamos a apoyar totalmente la protección y fomento del euskera y creemos que ese cambio que necesita la ley del euskera tiene que ir por ese camino, por la protección y fomento. Y para lograr y hacer eso, se necesitarán medidas concretas en las diferentes zonas. En este momento la ley marca claramente tres zonas, con sus propios nombres: zona vascófona, zona mixta y zona no vascófona. Cambiar eso, cambiar esa denominación, habría que hacerlo por ley. Nosotros en este momento estamos estudiando una propuesta donde la protección y el impulso se puede sacar adelante con progresividad, por zonas y con tiempo. En eso estamos totalmente de acuerdo, al menos, con su planteamiento general, ya que pensamos que hay baipases, baipases que sufrimos ahora cuando vamos para Donostia-San Sebastián, para baipasar la ley, para baipasar legalmente y para poner en marcha diferentes medidas de protección y fomento teniendo en cuenta la realidad sociolingüística de Navarra. Serán diferentes en cada zona, claro, pero al final serán medidas concretas que garantizarán los derechos lingüísticos de los navarros.]

Guk uste dugu legeak jartzen dizkigun oztopo guztiei aurre egiteko errealismoa behar dela, pragmatismoa eta, noski, eraginkortasuna edo efizientzia. Egia da ofizialtasunaren aldeko jarrera jarrera ideologiko bat da. Guk hori mantentzen dugu, defendatzen dugu eta errealitate

bihurtzen saiatuko gara, baina gehiengorik lortzen ez dugun bitartean, errealismoa, pragmatismoa eta efizientzia dira guztiz beharrezkoak. Eta sinez nazazue zuek proposatutako neurri konkretu guztiak oso kontuan hartzekoak direla. Eta berriz ere, lehen esan badut ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu ez bakarrik egunero egiten duzuen lanagatik, baizik eta txosten honexegatik ere. Eskerrik asko eta zorionak.

[Creemos que para hacer frente a todos los obstáculos que nos pone la ley se necesita realismo, pragmatismo y, por supuesto, eficacia y eficiencia. Es cierto que la postura a favor de la oficialidad es una postura ideológica. Nosotros eso lo mantenemos, lo defendemos e intentaremos convertirlo en realidad, pero mientras no consigamos la mayoría, el realismo, el pragmatismo y la eficiencia son totalmente necesarios. Y créanme que todas las medidas concretas que ustedes han propuesto son para tenerlas muy en cuenta. Y de nuevo, aunque ya lo he dicho antes, queremos darles las gracias no solo por el trabajo que realizan a diario, sino también por este informe. Muchas gracias y felicidades.]

Zuretzat galdera konkretu bat daukat. Prebentzioa aipatu duzu. Ez dakit gutxiegi ulertu dudan ala gehiegi ulertu dudan zure proposamen horretan. Gustatuko litzaidake prebentzio kontzeptu hori pixka bat argitu egingo bazenit. Mila esker, ongi etorriak izan zaitezte eta eskerrik asko.

[Tengo una pregunta concreta para ustedes. Usted ha hablado de la prevención. No sé si he entendido poco o demasiado sobre esa propuesta suya. Me gustaría si pudiera aclararme un poco ese concepto de la prevención. Muchas gracias, bienvenidas y muchas gracias.]

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Martínez jauna. Parlamentu taldeen txandarekin jarraituz, EH Bildu Taldearen izenean neronek hartuko dut hitza.

[Muchas gracias, señor Martínez. Siguiendo el turno de los grupos parlamentarios, en nombre de EH Bildu tomaré la palabra yo mismo.]

Hasteko, eskerrik asko udal euskara teknikarien sareari egindako ekarpenagatik. Uste dut zehatza, argia eta interesgarria izan dela. Noski, poliki azertu beharko da egin duten ekarpen osoa eta guk behintzat lanerako kontutan hartuko dugu. Orduan, saiatuko naiz gero horretaz hitz egiten, baina aurrena itzuliko naiz aurreko Batzordean esandako gauza batzuk berriz esatera, pixka bat Geroa Bai Taldeko ordezkariak egindako adierazpenagatik.

[Para empezar, muchas gracias a la red municipal de técnicos de euskera por las aportaciones realizadas. Creo que ha sido concreto, claro e interesante. Por supuesto, habrá que estudiar detenidamente todas las aportaciones que han realizado y nosotros al menos lo tendremos en cuenta a la hora de trabajar. Entonces, intentaré luego hablar de eso, pero primero vuelvo a repetir algunas de las cosas que dije en la anterior Comisión, un poco por las declaraciones realizadas por el portavoz de Geroa Bai.]

Lehendabizikoa, eta honetaz ez genuen aurrekoan hitz egin baina bai beste batzuetan, LORAFNA edo Foru Erregimenaren Lege Organikoari buruz. Hemen badakigu, Batzorde honetan iritzi desberdinak azaldu dira, hori aldatu gabe euskararen lege berririk egiterik ez

dagoela esaten duten adituak agertu dira. Beste batzuek esaten zuten badagoela bidea hori egiteko. Eztabaida hori hor daukagu argitu gabe. Argitu beharko da. Baina hura ez dakit zein momentutan argituko den, baina horren aurretik uste dut badagoela urrats bat hemen Parlamentuan egin beharrekoa, eta da, hain zuzen ere, Parlamentu honetan egiten ari garena: Nafarroan eta, hain zuzen ere, Parlamentu honetan erabaki Nafarroak nolako euskararen legea beharko lukeen. Eta hori erabakita, gero ikusi beharko litzateke horretarako nahiko den hemen egitea edo LORAFNA aldatu edo delakoa. Baina aurreko urratsa hori dela uste dut eta garrantzitsua dela ikuspegi horrekin jokatzeara. Alegia, goazen Nafarroan erabakitzea euskaraz zer behar dituen, euskaldunok zer behar dauzkagun eta Nafarroak nolako euskararen legea beharko lukeen. Orduan, uste dut horretan ari garela.

[En primer lugar, y sobre esto no hablamos en la anterior pero sí en otras, quiero hablar sobre la LORAFNA o la Ley Orgánica del Régimen Foral. Aquí sabemos, en esta Comisión se han explicado diferentes opiniones, han venido expertos que dicen que sin cambiar eso no se puede hacer una nueva ley del euskera. Otros dicen que hay forma de hacerlo. Ese debate lo tenemos ahí sin aclarar. Tendrá que aclararse. Pero eso no sé en qué momento se aclarará, pero antes de eso creo que hay un paso que hay que dar aquí en el Parlamento, y es, concretamente, lo que estamos haciendo en este Parlamento: decidir en Navarra y concretamente en este Parlamento qué tipo de ley del euskera necesitaría Navarra. Y una vez decidido eso, luego habría que ver si para eso es suficiente hacerlo aquí o si habría que modificar la LORAFNA o lo que fuera. Pero creo que el paso anterior es ese y que es importante jugar con esa perspectiva. Es decir, vayamos a decidir en Navarra qué necesidades tiene el euskera, qué necesidades tenemos los vascoparlantes y qué tipo de ley del euskera necesitaría Navarra. Entonces, creo que estamos en ello.]

Gero, bestea gehiengoaren kontu hori da, aurrekoan ere atera zelako eta, egia esan, behin baino gehiagotan entzun diogu Geroa Bai Taldeko ordezkariari esaten gehiengorik ez dagoela. Nik uste dut Batzorde honek bere saioak bukatzen dituenean, agerraldiak bukatzen dituenean alegia, badaukala egiteko bat eta da saiakera bat egitea adosteko euskararen legeak nolakoa izan beharko lukeen. Eta hor mahai gainean jarri beharko ditugu proposamenak, bakoitzak gurea. Horretarako hartu beharko dugu behar adina denbora eta behar hein izerdi egin eta ikusi adostasun batera ailegatzen garen edo ez. Eta ofizialtasunaren gaia, noski, muinean dagoelako, hor agertuko da. Momentu horretan esan beharko dugu indar politiko bakoitzak edo parlamentu talde bakoitzak zein den bere postura eta hor ikusiko dugu horrelako gauza batek gehiengoaren babesa izango lukeen edo ez, baina nik ez nuke gehiago aurreratuko hemen dagoen edo ez dagoen. Proposamenak mahairen gainean jarri arte itxarongo nuke eta orduan ikusiko da. Bakoitzak definituko du bere burua bozka baten bitartez edo adostasun bilaketa horretan hartzen duen jarreraren bitartez.

[Luego, otra cuestión es la de la mayoría, que ya salió en la anterior y que a decir verdad hemos escuchado al portavoz de Geroa Bai decir en varias ocasiones que no tenemos mayoría. Creo que cuando esta Comisión finalice con sus sesiones, cuando termine con las comparencias, tiene un quehacer y es hacer un intento para acordar cómo debería ser la ley del euskera. Y ahí tendremos que poner sobre la mesa las propuestas, cada uno la nuestra. Para eso tendremos que tomar el tiempo necesario y tendremos que sudar lo necesario y ver a ver si llegamos a un acuerdo o no. Y el tema de la oficialidad, por

supuesto, como está en el meollo, aparecerá ahí. En ese momento tendremos que decir cuál es la postura de cada fuerza política o grupo parlamentario y veremos si una cosa así podría tener el apoyo de la mayoría o no, pero yo no adelantaría demasiado si aquí la hay o no la hay. Esperaríamos hasta poner las propuestas sobre la mesa y entonces se verá. Cada uno se definirá mediante un voto o mediante esa posición que toma en esa búsqueda de acuerdo.]

Hori guztia esanda, gaurko ekarpenari dagokionez esan nahiko nuke, noski, ekarpen landua eta argudiatua iruditzen zaidala. Uste dut zehatza ere badela neurri batean bertan. Eta badakigu Batzorde honetan gaia askotan atera dela, proposamenek zehaztasun bat beharko dute eta jakin beharko dugu ofizialtasunak zein inplikazio dauzkan. Nik uste duk honek pixka bat hurbiltzen gaituela espektatiba horretara, ea hasten garen iristen zehaztasun maila batera jakiteko zertaz hitz egiten ari garen ofizialtasunaz ari garenean. Hemen uste dut proposamena jartzen gaituela beharbada bigarren fase batean, alegia, hipotesi bezala hartu da ofizialtasun egoera batean gaudela lurralde osorako eta hortik aurrera etorriko litzateke bereziki planifikazioaren alderdi hori. Uste dut horretaz aritu zaizkigula gehienbat teknikariak.

[Dicho todo eso, con relación a las aportaciones de hoy diría que, por supuesto, nos parece un aporte trabajado y argumentado. Creo que también es concreto en cierta medida. Y sabemos que en esta Comisión el tema ha salido muchas veces y las propuestas necesitan una precisión y tendremos que saber qué implicaciones tiene la oficialidad. Creo que esto nos acerca un poco a esa expectativa, a ver si empezamos a llegar a un nivel de concreción para saber de lo que hablamos cuando hablamos de oficialidad. Aquí creo que la propuesta nos sitúa quizá en una segunda fase, es decir, se ha tomado como hipótesis que estamos en una situación de oficialidad en todo el territorio y a partir de ahí llegaría especialmente este ámbito de la planificación. Creo que las técnicas nos han hablado sobre todo de eso.]

Hala ere, uste dut proposamenean badaudela kontzeptu eta oinarri batzuk interesgarriak eta guretzat behintzat funtsezkoak direnak lege baten diseinurako. Hor aipatu da bereziki hor protagonistak herritarrak direla. Uste dut hori oinarri-oinarrizko gauza dela, alegia, hemen egiten den guztia, ez bakarrik lege honekin baizik eta bestelakoekin ere, herritarrak bistan dauzkagulako horregatik izaten da. Zerbitzuan progresibotasuna aipatu da eta hori ere kontzeptu garrantzitsua da. Guk ere sartuko genuke horrelako ideia bat euskararen lege berri batean, alegia, zehazteko progresibotasun hori nola ulertzen den. Bestela, gerta daiteke orain arte gertatu dena: progresibotasunaren izenean epeak luzatu daitezkeela ehun urtez inongo konpromisurik gabe eta hori ezin da gertatu. Uste dut hor ere urrats bat eman behar dela.

[Sin embargo, creo que en la propuesta hay algunos conceptos y bases interesantes y que al menos a nosotros nos parecen primordiales para el diseño de una ley. Ahí se ha comentado especialmente que los protagonistas son los ciudadanos. Creo que eso es algo completamente fundamental, es decir, todo lo que se hace aquí, no solo con esta ley sino con todo lo demás también, es porque tenemos a los ciudadanos en mente. Se ha hablado de la progresividad en el servicio y ese también es un concepto importante. Nosotros también introduciríamos una idea así en una nueva ley del euskera, para concretar cómo se entiende esa progresividad. Si no, puede ocurrir lo que ha pasado

hasta ahora: que en nombre de la progresividad los plazos se pueden alargar cien años sin ningún tipo de compromiso y eso no puede ocurrir. Creo que ahí también hay que dar un paso.]

Baina baita ere aipatu da administrazioak izan behar duela aktiboa eta proaktiboa eta guk ere horrela ulertzen dugu administrazioaren papera euskararen eta hizkuntza minorizatu guztien normalizazioan. Alegia, botere publikoak jarrera hori hartu behar du. Normaltasuna ere bai, eskubideak, iniziatiba hartzea, gidaritzza eta horrelako gauzak aipatzen dira txostenean. Hemen, polikiago begiratu beharko da, baina horiek agertzen dira eta guretzako ere funtsezko ideiak dira. Berrikuntzaren bat ere dago, gaur arte entzun ez dena, eta da pixka bat gazte eta hurrekiko politiketan desberdintasun bat egitea eta uste dut soziolinguistikotik ere nahiko ulergarria dela. Hemen askotan esan dugu euskararen ezagutzak argazki bat erakusten digula, baina populazio adin gazteetan euskararen ezagutza askoz handiagoa da. Uste dut horren bitartez ere ongi xamar ulertu daitekeela beharbada adin talde horietan ere politika bereziak, espezifikoak eta zuzenagoak egin behar direla. Beraz, ekarpen interesgarria da hori ere bai.

[Pero también se ha dicho que la administración tiene que ser activa y proactiva y nosotros también entendemos así el papel de la administración en la normalización del euskera y de todas las lenguas minorizadas. Es decir, el poder público tiene que tomar esa actitud. En el informe también se habla de la normalidad, de derechos, de tomar la iniciativa, de orientación y cuestiones similares. Habrá que mirarlo más detenidamente, pero aquí aparecen esas cuestiones y para nosotros también son ideas fundamentales. También hay alguna novedad, que no hemos escuchado hasta ahora, y es un poco el hecho de hacer una diferencia en las políticas para jóvenes y niños y creo que desde la sociolingüística es algo bastante comprensible. Aquí hemos dicho muchas veces que el conocimiento del euskera nos muestra una fotografía, pero en la población joven el conocimiento del euskera es mucho mayor. Creo que mediante eso se puede entender muy bien que quizá en esos grupos etarios se tengan que hacer políticas diferentes, específicas y más directas. Por lo tanto, es un aporte interesante.]

Baita ere esan da gaurko egoeratik aurrera joan behar dela, abiapuntu bezala gaurko egoera hartuta, baina beti ikuspegi horrekin. Eta uste dut guk ere hori azpimarratu dugula behin baino gehiagotan, alegia, hemen egiten diren politikek eta marko normatiboak eta denak jarri behar dute euskararekiko ahalegin hori aurrera begira, alegia, aurrerratu egin behar dela. Uste dut ekarpen honek lagunduko digula edo lagundu dezakeela ofizialtasunaren ondorengo egoera pixka bat irudikatzen eta uste dut saioa bukatu eta lanean hasten garenean proposamen bat adosten saiatzeko hori ere bistan izan beharko dugula batez ere hemen esaten den horrengatik: jakin nahi dugu zein ondorio izango lituzkeen ofizialtasunak. Ba goazen pixkanaka egoera horiek ere irudikatzeraz eta ahal baldin bada gauza konkretuekin.

[También se ha dicho que hay que seguir adelante desde la situación actual, tomando como punto de partida la situación actual, siempre con esa perspectiva. Y creo que nosotros también hemos subrayado eso en diversas ocasiones, es decir, las políticas que aquí se hagan y el marco normativo y todo tienen que hacer ese esfuerzo para con el euskera mirando hacia delante, es decir, que se tiene que avanzar. Creo que este aporte nos ayudará o podría ayudar a dibujar un poco la situación siguiente a la oficialidad y

creo que a la hora de terminar las sesiones y nos pongamos a trabajar para intentar acordar una propuesta deberíamos tener eso en mente por eso que se dice aquí: queremos saber qué consecuencias tendría la oficialidad. Pues vayamos poco a poco a concebir esas situaciones y si es posible con cosas concretas.]

Zehaztasunaren bide horretan badaude txostenean ere eta hemen aipatu dira beste kontzeptu batzuk, zehatzagoak, orain arte Batzorde honetan gutxi entzun direnak eta da pixka bat administrazioaren nolabaiteko jardunaren sailkapen hori. Eta aipatzen dira zerbitzu motak, udalerrien tipologia, helburuak, neurriak, epeak eta horrelako gauzak. Orain arte modu orokor xamarrean hitz egin da, baina iritsiko da momentua beharbada horretaz hitz egiteko. Gure ikuspegia nahiko argia da.

[En ese camino de la concreción hay otros conceptos que se nombran en el informe y aquí también se han comentado, más concretos, que hasta ahora se han escuchado poco en esta Comisión y es un poco la clasificación de la actividad de la administración. Y se nombran los tipos de servicios, tipologías de municipios, objetivos, medidas, plazos y similares. Hasta ahora se ha hablado de forma totalmente general, pero llegará el momento quizá de hablar de eso. Nuestro punto de vista es bastante claro.]

Nik uste dut beti esan dugula ofizialtasuna lurralde osora planteatzen dugula eta uste dut horrela izan behar duela, eta baita ere hizkuntza eskubideak herritar guztientzat izan behar dutela, alegia, Nafarroa osoko herritar guztientzat hizkuntza eskubideak. Eta hortik aurrera, etorri daiteke modulazioa eta hori ere guk esan izan dugu. Baina guk ez dugu ofizialtasuna modulatzeko. Hemen planteamendua da, izatekotan, hizkuntza politikak modulatzeko. Eta modulazio horretan behar izango ditugu irizpide eta ideia zehatzak eta hor beharbada planteatu daitezke mahai gainean jarri diren gauzetako batzuk edo beste batzuk. Guk behintzat hemen esan direnak kontuan hartuko ditugu gure proposamena egiteko garaian eta adostasun hori bilatzeko garaian. Baina, gutxienez, badaude hasieran gauza zehatz batzuk edo ekarpen zehatz batzuk ere agertzen.

[Creo que siempre hemos dicho que planteamos la oficialidad para todo el territorio y creo que tiene que ser así, y también que los derechos lingüísticos tienen que ser para todos los ciudadanos, es decir, derechos lingüísticos para todos los ciudadanos de toda Navarra. Y a partir de ahí puede venir la modulación y eso nosotros también lo hemos dicho. Pero nosotros no modulamos la oficialidad. Aquí el planteamiento es que de ser se modulen las políticas lingüísticas. Y en esa modulación necesitaremos criterios e ideas concretas y ahí quizá se podrían plantear algunas de las cosas que se han puesto sobre la mesa u otras. Nosotros al menos las que se han dicho aquí las tendremos en cuenta a la hora de hacer nuestra propuesta y a la hora de buscar ese acuerdo. Pero al menos están apareciendo al principio algunas cosas concretas o aportes concretos.]

Gero, Batzordeak ere jaso ditu beste hainbat ekarpen. Oinarriak, kontzeptuak eta proposamen zehatzak horiek ere hemen atera izan dira, baina uste dut hurrengo asteetan ahalegin bat egin beharko dugula horretan gehiago aurrera egiteko. Datu soziolinguistikoen inguruan ere uste dugu dauzkagun datuak, hemen esan bezala, 2001. urtekoak direla asko, 2011. urteko errolda horietan laginak handiagoak zirelako eta herri txikietarako beharbada ez dira hain fidagarriak. Uste dut horrek buelta bat behar duela eta, egia esan, guk gai honi garrantzi handia ematen

diogunez, uste dugu lege bat egiteko edo politika batzuk ezartzeko erabiltzen dugun informazio eta datuak eta oinarri guzti hori izan beharko lukeela beharbada gaur egun daukaguna baino sendoagoa. Beraz, pentsatu beharko genuke datu soziolinguistikoen inguruko bilketa horiek eta metodologiak eta horrelakoak zein diren eta beharbada egokitzeren baten bat planteatu beharko da. Baina beti ere beharko genuke planteatzen badugu hizkuntza politika modulatzeko eta tipologia eta horrelako gauzak, tipologia horiek oso funtzio handiarekin eginak egon beharko lirateke.

[Después, la Comisión también ha recibido diversos aportes. Aquí también han salido bases, conceptos y propuestas concretas, pero creo que en las próximas semanas tendremos que hacer un esfuerzo para avanzar en ello. Sobre los datos sociolingüísticos también creemos que los datos que tenemos, como se ha dicho aquí, muchos son del 2001, ya que en esos censos de 2011 las muestras eran mayores y para los pueblos pequeños quizá no sean tan fiables. Creo que eso necesita una vuelta y, a decir verdad, como nosotros le damos gran importancia a este tema, creemos que la información y los datos y toda esa base que utilizamos para hacer una ley o para establecer unas políticas debería ser quizá más sólida que la que tenemos en la actualidad. Por lo tanto, tendríamos que pensar cuáles son esas recopilaciones sobre los datos sociolingüísticos y las metodologías y similares y quizá haya que plantear alguna adecuación. Pero, si planteamos modular la política lingüística y la tipología y todas las cosas así, esas tipologías siempre deberían estar hechas con una gran función.]

Eta azkenengo gogoeta bat egingo dut, pixka bat hemen aipatu den laugarren tipologia horretaz, honetaz ere gutxi hitz egin delako hemen seguru aski eta da pixka bat herri euskaldunenak eta arnaguneak deitzen ditugun horiek. Horretan guk ere pentsatzen dugu horiek trataera berezi bat behar dutela eta, hemen esan den bezala, seguru aski euskararen erabilera lehenetsi. Eta badakit batzuentzako izango dela nola planteatu behar den lehenestea eta euskararen erabilera hori. Nik uste dut panorama osoa gutxienez begiratu behar dela eta ez bakarrik administrazioarekiko planteatzen ari den zerbait bezala.

[Y haré una última reflexión un poco sobre esa cuarta tipología que se ha comentado aquí, ya que seguramente sobre esto aquí se ha hablado poco, y es que es la cuestión de los pueblos vascoparlantes y las zonas de respiro o arnaguneak. Sobre eso nosotros también pensamos que esos tienen que tener un tratamiento especial y, como se ha dicho aquí, seguramente habría que priorizar el uso del euskera. Y sé que para algunos será cuestión de cómo hay que plantear la priorización y ese uso del euskera. Creo que al menos hay que observar el panorama completo y no solo como algo que se está planteando para con la administración.]

Egia esateko, panorama osoa ikusten baldin bada, planteatzea hizkuntza hauentzat, hizkuntza minorizatu batentzat, behar dituela espazio batzuk non hizkuntza nagusia izango den edo lehenetsia, uste dut logikoa dela, bereziki begiratzen baldin badugu gaur egun daukan egoera, baita arnaguneetan ere, non euskara sozialki nagusia den gaztelania izaten jarraitzen du edo frantsesa iparraldean. Alegia, nahiz eta espazio bat mantentzen eta euskarari ematen saiatu gizarteko eremu jakin batean, badakigu desoreka oso handia dela eta uste dut errealitateak berak ere justifikatzen duela eta nolabait esplikatzen duela zergatik planteatzen den hizkuntza

batek bere biziraupenerako behar dituen horrelako espazioak. Eta hain zuzen ere Nafarroan tipologia horretako udalerrietan uste dut oso logikoa eta oso onargarria eta zentzuzkoa dela esatea politika berezi batzuk ere behar direla. Eta horrek ere isla izan beharko luke ez bakarrik hizkuntza politiketan, baizik eta balizko euskarazko lege berri batean ere.

[A decir verdad, si se ve el panorama completo, creo que es lógico plantear que estas lenguas, una lengua minorizada, necesitan unos espacios donde esta sea la lengua principal o la prioritaria, sobre todo si miramos la situación que tenemos en la actualidad, incluso también en las zonas de respiro, donde el euskera es el principal socialmente y el castellano sigue y el francés en el norte. Es decir, a pesar de que se mantenga un espacio y se trate de priorizar el euskera en un ámbito concreto de la sociedad, sabemos que el desequilibrio es muy grande y creo que la propia realidad justifica y en cierto modo explica por qué se plantea que una lengua necesite espacios así para su supervivencia. Y concretamente en Navarra en los municipios de esa tipología creo que es muy lógico y muy beneficioso y sensato decir que también se necesitan unas políticas especiales. Y eso también debería reflejarse no solo en las políticas lingüísticas, sino también en una hipotética nueva ley del euskera.]

Honenbestez, gure hitza bukatu da eta hitza emango diogu Podemos-Ahal Dugu Taldeko ordezkaria den Pérez Ruano andreari.

[Con esto, finalizamos nuestro turno y le damos la palabra a la señora Pérez Ruano, portavoz de Podemos-Ahal Dugu.]

SRA. PÉREZ RUANO: Mila esker, mahaiburu jauna. Eskerrik asko baita zuei ere, batez ere egunero egiten duzuen lanagatik herritarren hizkuntza eskubideen aitortzan baina hona ekarritako ekarpenengatik ere bai. Nik uste dut agian izan direla orain arte ekarritako ekarpen behintzat zehatzenak eta interesgarrienak. Izan ere, batez ere, ikus dezakeguna azken finean da oso zentzuzkoak direla eta egingarriak. Gainera, adierazten dute epeen aldetik 50, 30 eta 20 urteko epeak ezarrita, batzuetan gutxiago, baina egingarriak direla eta, batez ere, errealitate soziolingüistiko desberdinei moldatuak eta udalerritan egindako lanetik abiatuz.

[Muchas gracias, señor Presidente. Muchas gracias también a ustedes, sobre todo por el trabajo que realizan a diario en la declaración de los derechos lingüísticos de los ciudadanos y también por las aportaciones que han traído aquí. Creo que quizá sean los aportes al menos más concretos e interesantes que han traído hasta ahora. De hecho, sobre todo, lo que al final podemos ver es que son muy sensatos y realizables. Además, indican que estableciendo unos plazos de 60, 30 y 20 años, a veces menos, son realizables y, sobre todo, están adecuados a las diferentes realidades sociolingüísticas y partiendo del trabajo realizado en los municipios.]

Iruditzen zaidana da, azken finean, horrelako proposamenekin guztiz bateragarria izango litzatekeela ofizialtasuna planifikazio egoki batekin. Orduan, ez dela zertan ofizialtasunaren aitzakia hartu behar posible ez dela esateko. LORAFNA aldatu beharko den ala ez, behintzat saiakera egin beharko dugu eta lehenbailehen bada hobeto. Eta normaltasun horra jo nahi baldin badugu, azken finean, administrazioak eman behar duen zerbitzu egoki horretara jo

nahi baldin badugu, giza baliabideak beharrezkoak direla, izan ere, nola bermatuko da zerbitzu hori azken finean ehuneko 1,28 besterik ez baldin bada elebidun.

[Lo que me parece es que con propuestas así la oficialidad sería totalmente compatible, con una planificación adecuada. Entonces, que no hay que tomar la excusa de la oficialidad para decir que no es posible. Sobre si hay que cambiar o no LORAFNA, al menos tendremos que hacer un intento y cuanto antes mejor. Y si queremos ir hacia esa normalidad, al final, si queremos ir a ese servicio adecuado que tiene que dar la administración, los recursos humanos son necesarios, ya que a ver cómo se garantiza ese servicio si al final solamente el 1,28 por ciento es bilingüe.]

Nik esango nioke Geroa Bai Taldeko bozeramaileari zein izan daitekeen prebentzioa. Prebentzioa izan daiteke, nahiz eta legeak hainbat eskubide aitortu eta hezkuntzan duela gutxi arte euskaraz ikasteko eskubidea Nafarroa osoan ez aitortu edo aitortu izana, gero nola hizkuntza mantendu ahal izan. Besteak beste, hainbat esfortzu egin izan ondoren, ikusten dugu nola ez baldin badaude arnagunerik ez espaziorik, nahi dugunok ere hizkuntza galdu egiten dugu. Eta azken finean, benetan deigarria iruditzen zaidana da hemen esatea behar dugula bai gehiengo politikoa, nola bestelako indar korrelazio politikoak hiritarron eta herritarron eskubideak eskaini ahal izateko. Beste kasuetan ez dugu horrelakorik esaten. Egungo legea, azken finean, ez da ezta eremu euskaldunean ere bermatzen, are gutxiago besteetan. Orduan, egin beharko dena da, esan bezala, administrazioetik ekintza proaktibo hori.

[Yo lo diría al portavoz de Geroa Bai cuál puede ser la prevención. La prevención puede ser, a pesar de que la ley reconozca diversos derechos y a pesar de que hasta hacer poco no se hubiera reconocido o se hubiera reconocido el derecho de estudiar en euskera en toda Navarra, cómo se puede mantener luego la lengua. Entre otras cuestiones, tras haber realizado diferentes esfuerzos, vemos cómo si no hay zonas de respiro ni espacios, los que los queremos también perdemos la lengua. Y, al final, lo que realmente me parece llamativo es que aquí se diga que necesitamos tanto la mayoría política como diferentes políticas correlacionales para poder ofrecer los derechos de los ciudadanos. En otros casos no decimos eso. La ley actual, al final, no se garantiza ni en la zona vascofona, mucho menos en las otras. Entonces, lo que habrá que hacer es, como se ha dicho, esa actividad proactiva desde la administración.]

Guk beti esaten dugu, behin baino gehiagotan, ofizialtasunaren alde gaudela, beharrezkoa dela guztioi eskubide berdinak aitortu ahal izateko. Eta gero planifikazioa horrelako proposamenetatik abiatuz, errealitate desberdinetatik abiatuz eta jakinda ere egungo errealitate linguistikoa badela orain arte egindako hizkuntza politikoen ondorio bat. Hauek irauli ahal izateko, baliabide ekonomikoak beharko ditugula, betiko kontua, baina borondate politikoa besterik ez dela. Batzuetan ikusten dugu nola askotan borondate politiko hori beste interesen menpe dagoen. Orduan, horren inguruan ere hitz egin beharko genuke argi eta garbi, zergatik agian ez den orain legea aldatuko. Izan daiteke hauteskunde urtean gaudelako. Utzi egin beharko genioke, batez ere aldagetaren alderdiok, euskara besteek erabiltzen duten moduan edo posizioa erabiltzen duten moduan, arma politiko bezala erabiltzeari uzten.

[Nosotros siempre decimos, en varias ocasiones, que estamos a favor de la oficialidad, que es necesaria para poder conceder los mismos derechos a todos. Y luego la

planificación partiendo de propuestas así, partiendo de diferentes realidades y sabiendo que la realidad lingüística actual es una consecuencia de la política lingüística realizada hasta ahora. Para acabar con estas, necesitamos recursos económicos, lo de siempre, pero no es solo cuestión de voluntad política. A veces vemos cómo muchas veces esa voluntad política está a merced de otros intereses. Entonces, también deberíamos hablar alto y claro sobre eso, por qué quizá no se cambie la ley ahora. Puede ser porque estemos en año de elecciones. Deberíamos dejar de utilizar el euskera, al menos los partidos del cambio, como lo utilizan los otros o como utilizan la posición, como un arma política.]

Gu horretan egongo gara. Gure aldetik, ea ekiditen diogun behingoz kontu honi, batez ere, elkarbizitza sustatu ahal izateko. Besterik gabe. Mila esker.

[Nosotros estaremos en ello. Por nuestra parte, a ver si evitamos por fin esta cuestión, sobre todo, para poder fomentar la convivencia. Nada más. Muchas gracias.]

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Pérez andrea. Orain Nafarroako Alderdi Sozialistaren txanda da Jurío andrea, zurea da hitza.

SRA. JURÍO MACAYA: Gracias. Muchas gracias por todas las explicaciones que nos han dado, por los documentos que nos han aportado, que, además, son extensos y muy detallados, y los estudiaremos. Hemos visto que las propuestas que van haciendo establecen un desarrollo y se dan para el supuesto de que el euskera fuera oficial en toda la Comunidad Foral.

Bueno, pues son unas medidas que ustedes proponen en ese supuesto, pero en este momento el euskera no es oficial en todo el territorio de la Comunidad Foral. Tampoco compartimos con ustedes que la Administración no haya sido proactiva en este sentido, proactiva en el sentido de proteger el uso de la lengua y de proteger el derecho al uso de una lengua que es propia por parte de todos los ciudadanos navarros y navarras. Igual, efectivamente, no se ha hecho con la intensidad adecuada y con todo el desarrollo que nuestros reglamentos o la legislación permitían, porque muchas veces sí que depende de voluntades y de consideraciones políticas o del momento en el que se vive. Sin embargo, sí creemos que se han llevado a cabo actividades en este sentido y queremos apoyar que la Administración siga siendo proactiva, pero cada cual tenemos nuestro concepto de en qué medida debe tener implantación el euskera dentro de la Administración.

También consideramos que los reglamentos que existen del desarrollo de la Ley Foral del Euskera, tanto el del 2003 como el del 2017, dan suficiente amplitud para dar respuesta al derecho de los ciudadanos y ciudadanas navarros al uso de la lengua. Creemos, además, que el decreto aprobado en este Parlamento el año pasado todavía está siendo objeto de desarrollo del estudio de los puestos de trabajo, de aquellos que deben reunir el requisito del euskera, cuáles son los que... Y todo esto, de acuerdo con los sindicatos. Creemos que tenemos que esperar a ver cómo se desarrolla eso para ver si se consigue atender en mayor medida al derecho del uso del euskera por parte de los ciudadanos, pero creemos que, muchas veces, en la determinación de los puestos que hay, es adecuado.

Y una cosa que también consideramos es que una cosa son los puestos que necesitan el requisito del euskera y otra cosa es el nivel de conocimiento del euskera que existe en el personal al servicio de la Administración Pública navarra. Y ahí también creemos que habrá que hacer un estudio en ese sentido y ver en qué medida se utilizan esos medios –además, han sido formados, en la mayoría de las ocasiones, por la propia Administración–, para así cumplir los requisitos de eficiencia y eficacia y servicio al ciudadano que se le exige a cualquier Administración Pública.

Luego, estamos de acuerdo en que en los diferentes Ayuntamientos se utilice también una actitud proactiva para satisfacer el derecho al uso del euskera por parte de los ciudadanos, pero también pedimos que la Administración se autoorganice de aquella manera que considere necesaria, pero que nunca lo haga de forma arbitraria, porque son muchos los derechos que hay que respetar y es mejor llegar a acuerdos y siempre de conformidad con la realidad sociolingüística que existe en nuestra tierra, con la legalidad que rige actualmente nuestra tierra y con respeto a los principios que rigen el acceso a la función pública.

En ese sentido, nada más, que lo estudiaremos detalladamente, porque creemos que han hecho un estudio detallado que, en muchas ocasiones y según el nivel de conocimiento del euskera o de implantación del euskera, se extiende a muchos años, o sea, que son medidas que efectivamente se aplican con efectiva progresividad, que es lo que ustedes intentan definir o limitar en el tiempo, cómo se debe aplicar esa progresividad. Y la progresividad, en muchos derechos, hay ocasiones en que requiere mucho tiempo, ir despacio, sin pausa, pero igual, sin coincidencia en objetivos, definir objetivos y cuál es la finalidad. Gracias.

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Jurío andrea. Jarraian, Izqueirda-Ezkerrako ordezkaria den Nuin jaunari emango diogu hitza.

SR. NUIN MORENO: Gracias, señor Presidente. Nosotros agradecemos a la red de técnicos municipales de euskera la aportación que nos ha hecho. La estudiaremos, la miraremos con detenimiento, más allá de lo que en este momento el tiempo y los minutos de esta sesión permiten. En todo caso, efectivamente, nosotros partimos de –lo hemos dicho a lo largo de los trabajos de esta Comisión– que creemos que la política lingüística debe estar adaptada a las diferentes realidades sociolingüísticas que existen en Navarra. Ustedes parten, en la propuesta que nos han hecho, de reconocer que esa realidad sociolingüística es muy diversa. Establecen cuatro tipologías de municipios según la presencia de vascohablantes o cuasihablantes, entre menos del 10 por ciento y hasta más del 70 por ciento. Eso es algo que nosotros entendemos que debe ser así, que la política lingüística debe estar adaptada, pero debe estar adaptada hoy y dentro de cincuenta años.

Lo que quiero decir es lo siguiente, porque en la página 13 concluyen: «Antes del transcurso de esos plazos, todos los servicios deberán ser completamente bilingües en todas las tipologías y en todos los Ayuntamientos». Hombre, esto estará justificado si ya no estamos con la tipología de menos del 10 por ciento. Porque, si no, no. Si no, la realidad sociolingüística seguirá manteniendo la diversidad que tiene ahora y nuestra opinión será difícilmente... Nosotros no suscribiríamos el que las Administraciones tienen que ser uniformes en toda Navarra. Si la dispersión hoy del conocimiento del euskera se sigue dando dentro de diez, de quince o de veinte años, y no tenemos una Administración bilingüe íntegramente, no se justificará, esa

política lingüística chocará contra la realidad social. Eso es lo que, simplemente, queríamos apuntar; más que nada, que estudiáramos esto en profundidad.

Y luego también, para nosotros es muy importante que vayamos a los municipios, a estos municipios. Y también que desde el Gobierno, desde los grupos, desde el Parlamento, antes de aprobar unos nuevos contenidos de política lingüística, tengamos el acuerdo y el consenso también de esos municipios y de esas zonas, porque ellos van a ser los que tengan que aplicarlo. Entonces, también ese trabajo de buscar el consenso, de buscar acuerdos. El protagonismo de la ciudadanía han dicho ustedes que es importante. Claro, pues eso también se manifiesta a través de la voluntad de los municipios. Bueno, pues eso también es muy importante para nosotros.

En cualquier caso, nosotros ya lo hemos dicho, la política lingüística debe respetar principios como el de la libertad, el de la voluntariedad, y luego adaptarse de forma progresiva a la realidad que haya en cada sitio, pero los principios de la libertad y la voluntariedad son importantes. Y sobre esa base, nosotros estamos dispuestos a seguir trabajando y seguir avanzando en pro de que una lengua propia como es el euskera tenga un mayor conocimiento y uso en Navarra.

Y el debate de la oficialidad, hay quien defiende... han venido aquí expertos juristas que defienden que, sin la declaración de oficialidad, una ley de política lingüística podría incorporar estos contenidos, que no haría falta la declaración de oficialidad, que eso es una mera declaración cuasipolítica, sin más efectos jurídicos. También han venido otros expertos diciendo que no, que tiene efectos jurídicos, con lo cual hay un debate de entrada sobre hasta qué punto es necesario o no para articular políticas lingüísticas como las que ustedes proponen. Hay quien defiende que no, que la oficialidad es una mera declaración cuasipolítica sin efectos jurídicos. Pues este Parlamento podría hacer una ley foral de política lingüística.

En todo caso, han planteado aquí también diferentes expertos el debate de que no tenemos nosotros... unos opinan que no tenemos competencias para hacer una ley foral de oficialidad, porque eso exige reforma del amejoramiento, y otros, que sí, que lo podríamos hacer. Así de embrollado jurídica y políticamente está este asunto de hacer una ley que meramente declare la oficialidad. Lo que nosotros sí creemos es que una ley foral de política lingüística se puede aprobar, más allá de si se hace la ley foral que declare la oficialidad en todo el territorio o no, una ley foral de política lingüística, y ahí, insisto, nuestros principios son adaptación a la realidad sociolingüística de las diferentes zonas de Navarra, que es muy diversa, y a partir de ahí, a partir de esa adaptación, también buscar el consenso y el acuerdo de los municipios, de las zonas donde esos municipios, esos Ayuntamientos, en definitiva, van a ser una Administración protagónica en la aplicación de esa política lingüística que defina esa ley foral.

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Nuin jauna. Parlamentu taldeen hitza entzun ondoren, eta gaur onartu dugun aldaketaren arabera, ohiko prozedurara itzuli garenez, hogei minutuko tarte daukate gaurko agerraldira etorritako ordezkariak beren iritzia emateko edo egindako galderei erantzuteko edo behar bezalako argibideak emateko. Zuen hitza, gehienez ere hogei minutuz.

[Muchas gracias, señor Nuin. Tras haber escuchado las palabras de los grupos parlamentarios, y según el cambio que hemos aprobado hoy, como hemos vuelto al procedimiento habitual, los portavoces que han acudido a la comparecencia de hoy tendrán un margen de veinte minutos para dar su opinión o para responder a las preguntas planteadas o para dar las explicaciones correctas. Tienen ustedes la palabra durante un tiempo máximo de veinte minutos.]

SRA. ARBURUA ETXEBERRIA: Galdera zehatz bat behintzat egin digu Martínez jaunak eta horri nik erantzunen diot. Niretzako zen galdera. Prebentzioaren ideia hori ingurumen arlotik dator. Ingurumen arlotik hartua da. Erranen nuke legez arautua ere egon daitekeela. Ideia da eremu batean espezie bat edo landare bat babestua baldin badago eta eremu horretan azpiegitura proiektu bat egin behar baldin bada, merkataritza, turismoa edo horrelako proiektu bat, aldez aurretik neurtu behar dela espezie edo landare horretan zer eragina izanen duen azpiegitura horrek.

[El señor Martínez nos ha hecho al menos una pregunta concreta y yo voy a responder. La pregunta era para mí. Esa idea de la prevención viene del campo del medioambiente. Se ha tomado del ámbito del medioambiente. Diría que también podría estar reglado por ley. La idea es que si en un espacio una especie o una planta está protegida y si en esa zona hay que hacer un proyecto de infraestructura, un proyecto de comercio, turismo o similares, primero hay que medir qué impacto tendrá esa infraestructura en la especie o planta.]

Hori nolabait hizkuntzaren arlora iritsi edo trasladatu da, ideia hori. Azken urteotan garatzen hasi da, nahiko gauza berria da. Oker ez banago Galesen eta Finlandian badute jada bidetxo bat egin eta erranen nuke edo ausartuko naiz erratera arautua ere badagoela toki horietan. Eta hori da ideia. Euskarari dagokionez, udalerrri euskaldunen mankomunitateak duela urte batzuk jada ekin zion bide horri. Badauka tresna bat garatua, ELE deitzen den tresna bat garatua du eta balio du, hain zuzen ere hori neurtzeko, zer eragin izanen lukete horrelako azpiegiturek hizkuntza gutxituan.

[Eso ha llegado o se ha trasladado de algún modo al campo de la lengua, esa idea. Ha empezado a desarrollarse en los últimos años, es algo bastante novedoso. Si no me equivoco, en Gales y Finlandia ya tienen cierto recorrido y diría o me atrevería a decir que en esos lugares ya está regulado. Y esa es la idea. En lo referido al euskera, la mancomunidad de los municipios vascófonos hace a unos años que emprendió ese camino. Tiene desarrollada una herramienta que se llama ELE y que vale concretamente para medir eso, qué impacto tendrían infraestructuras así en las lenguas minoritarias]

Eta, hain zuzen ere, pasa den astean irakurri genuen komunikabideetan, dakizuen bezala Euskal Autonomia Erkidegoan iaz edo udal lege berria onartu zuten, eta orain udal lege horren garapena prestatzen ari dira eta nonbait sartzekoak direla azterketa horiek egin beharra neurri gisa.

[Como saben, el año pasado en la Comunidad Autónoma Vasca aprobaron una nueva ley municipal, y concretamente la semana pasada leímos en los medios de comunicación

que ahora están preparando el desarrollo de esa ley y que en cierto modo van a introducir esos exámenes como medida necesaria.]

Ez dakit horrekin erantzuten dudan zure galderari.

[No sé si con eso respondo a su presunta.]

SRA. LIZEAGA URDANPILLETA: Beste alde batetik, badaezpada ere argitu nahi genioke kontutxo bat Jurío andreari. Proaktibotasuna aipatu du berak eta guk soilik argitu nahi genuke guk gure dokumentu honetan ez dugula egin zehazki inolako baloraziorik orain arteko jarrera horri buruzkoa. Egin duguna da, eta berez ez zen hori helburua, nolabait atzera pixka bat begiratu aurrera zer ikasi dezakegun ikusteko eta gero bai ofizialtasunezko lege testuinguru batean hor proposatzen dugu aktibo izatea eta proaktiboa ere bai.

[Por otro lado, por si acaso querría aclararle una cuestión a la señora Jurío. Ella ha hablado de la proactividad y nosotras solamente queremos aclarar que en nuestro documento no hemos realizado ningún tipo de valoración sobre esa actitud que ha habido hasta ahora. Lo que hemos hecho, en sí ese no era el objetivo, mirar un poco hacia atrás para ver qué podemos aprender más adelante y luego en un contexto legal de oficialidad ahí proponemos que sea activa y también proactiva.]

Aldi berean argitu nahi genuen hemen aurkeztu duguna, nahiz eta neurri zehatzetan gauzatua ekarri, Nafarroa osorako gerturapen bat dela. Orduan, batetik, lurralde osorako prestatua dago, nahiz eta gero tipologiak banatzen dituen eta zehaztapen batzuk ematen dituen. Hori alde batetik. Eta beste alde batetik, aipatu nahi dugu hau guztia, azalpenean aipatu dugula uste dut, baina badaezpada ere azpimarratu nahi dugu, plangintza aldika garatu beharko litzatekeela. Plangintza aldika eta tokian tokirako plan zehatzetan gauzatuta.

[De igual modo quería aclarar que lo que hemos presentado aquí, a pesar de haberlo traído realizado en medidas concretas, es una aproximación para toda Navarra. Entonces, por un lado, está preparado para todo el territorio, aunque luego divide las tipologías y dé algunas especificaciones. Eso por un lado. Y, por otro lado, queremos decir que todo esto, creo que lo hemos comentado en la explicación, pero por si acaso queremos subrayar que la planificación habría que desarrollarla por turnos. La planificación tiene que ser por turnos y realizada en planes concretos para cada lugar.]

Horregatik, adibidez, Nuin jaunak zioen epe horiek errealitate soziolinguistikoak erantzun beharko liokela 50 urteko epe horri. Jakina, guk proposatzen duguna da plangintzaldiz plangintzaldi administrazio barnean neurri batzuk hartzea baina, esan dugun bezala, administrazioan gertatzen dena eta lurraldean gertatzen dena lotua dago neurri batean. Orduan, bi bide paralelo egin beharko genituzke. Egia da gu jasotako eskaerari erantzunez, gehiago aritu garela administrazio barruan, baina ulertzen da progresibotasunak zernolakotasuna zehaztu gabe duela esaten dugunean, batetik esparruak definituta behar ditugula eta gutxieneko epe batzuk ere bai betetzeko, jakina. Orduan, epe horien buruan errealitate soziolinguistikoak, bai administrazio barruan eta kanpoan ere, antzekotasuna izanen lukeela.

[Por eso, por ejemplo, el señor Nuin decía que la realidad sociolingüística debería responder a ese plazo de 50 años. Por supuesto, lo que nosotros proponemos es que entre planificación y planificación dentro de la administración se tomen algunas medidas, pero, como hemos dicho, lo que ocurre en la administración y lo que ocurre en el territorio está unido en cierta medida. Entonces, tendríamos que recorrer dos caminos paralelos. Es cierto que nosotros respondiendo a la solicitud recibida hemos trabajado más dentro de la administración, pero se entiende que cuando decimos que la progresividad está sin concretar la cualidad, decimos que por un lado que tenemos que definir los ámbitos y que también se tienen que cumplir unos plazos mínimos, claro. Entonces, al término de esos plazos la realidad sociolingüística, tanto dentro como fuera de la administración, será parecida.]

Ez dakit besterik gehitu nahi duzun.

[No sé si quiere añadir algo más.]

SRA. MINDEGIA ILARREGI: Agian, bukatzeko, hainbat oharpen egin direnean, Jurío andreak aipatu du barruko antolaketa, autoantolaketa eta horrelakoak eta noski oso baliagarria dela hori ere. Kontutan hartu behar da hainbat udaletan, udal txikietan, errazagoa dela jakitea, foru administrazioan orain egiten ari diren ikerketa hori. Eta oso egokia izan daiteke baita ere, izan ere barnean baldin badago baten bat zerbitzua edo arreta euskaraz egin dezakeena, arreta postuan jarri ahal da. Horrekin erabat ados gaude.

[Quizá para finalizar quería comentar que cuando se han hecho diversas anotaciones, la señora Jurío ha comentado la organización interna, la autoorganización y similares y por supuesto que eso es también muy útil. Hay que tener en cuenta que, en muchos municipios, en los municipios pequeños, es más fácil saber lo de esa investigación que están haciendo ahora en la administración. Y puede ser muy adecuada ya que, si dentro hay alguien que puede dar el servicio o atención en euskera, se puede poner en el puesto de atención. Con eso estamos completamente de acuerdo.]

Gero, pixka bat epeetara bueltatuz, azpimarratu nahi dut egoera hain txarra 50 urtetan jarri ditugula. Bi belaunaldiz ari gara. 50 urte bi belaunaldi dira. Esperientzia propiotik ikusita, guk badaramagu, batzuk behintzat, Nafarroako teknikarien sarean belaunaldi bat baino gehiago lanean. Esan dugu 30 urteko ibilbidea daukagula eta hor ikusi dugu zer aldaketa dagoen aldeketasun politikoak poliki-poliki progresiboki eta mailakatuak ezarrita. Orduan, iruditzen zaizkigu bi belaunaldi badirela. Horrela entzunda 50 baino askoz gehiago ematen du.

[Luego, volviendo un poco a la cuestión de los plazos, quiero destacar que la situación tan mala la hemos puesto en 50 años. Estamos hablando de dos generaciones. 50 años son dos generaciones. Visto desde la experiencia propia, nosotros ya llevamos, algunos al menos, trabajando en la red de técnicos de Navarra más de una generación. Hemos dicho que tenemos una trayectoria de 30 años y ahí hemos visto qué cambio se da al establecer apoyos políticos poco a poco progresivamente y de forma graduada. Entonces, nos parece que son dos generaciones. Oído así parece mucho más de 50 años.]

Hori da guk pixka bat iritzi duguna, kontutan hartuta nondik abiatzen diren hainbat udalerrri. Horixe besterik ez.

[Eso es un poco lo que opinamos, teniendo en cuenta de dónde partimos en muchos municipios. Nada más.]

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko. Batzorde Berezi honen arautegiak aukera ematen digu nahi izanez gero parlamentu taldeek bigarren hitza hartzeko. Inork hitza berriz hartu nahi baldin badu horretarako aukera du. Horrela ez baldin bada, besterik gabe, eskerrak emango dizkiegu berriz Lizeaga, Arburua eta Mindegia andreei, Nafarroako euskal teknikarien sareko ordezkari. Eta horrenbestez, bilera bukatutzat ematen dugu.

[Muchas gracias. La normativa de esta Comisión Especial da la oportunidad de que si un grupo parlamentario lo desea tome la palabra por segunda vez. Si alguien quiere volver a tomar la palabra tiene esa posibilidad. Si no, nada más, les damos de nuevo las gracias a las señoras Lizeaga, Arburua y Mindegia, representantes de la red de técnicos de euskera de Navarra. Y dicho esto, se levanta la sesión.]

(Se levanta la sesión a las 13 horas y 39 minutos).